



ZUMAIACO
HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA
INFORMAZIO-FASEA
III. ERANSKINA
**HERRITARREK PARTE HARTZEKO
PROZESUAREN TXOSTENA**

2020KO UZTAILA



Zumaia
Udala



ZUMAI
BIZITZEKO
DA

EDUKIA

1. PARTAIDETZA-PROZESUAREN LABURPENA	3
2. AURREKARIAK ETA LAN-ESPARRUA.....	7
2.1 Zumaia HAPO berriaren lanketa.....	7
2.2 Lan-esparrua: informazioa, partaidetza eta mugak	7
3. PARTAIDETZA-PROZESUAREN AZALPENA	9
3.1 Helburuak, metodologia, eragileak eta parte hartzeko moduak.....	9
3.2 Komunikazioa eta dibulgazio-materiala	11
3.3 Partaidetza-adierazleak	13
4. EMAITZAK ETA HAPO-REN 1. FASEAN EGINDAKO EKARPENAK	16
4.1 01. GAIA: INGURUNE NATURALA	17
4.2. 02. GAIA: MUGIKORTASUNA	19
4.3. 03. GAIA: ESPAZIO PUBLIKOA	23
4.4. 04. GAIA: ETXEBIZITZA	27
4.5. 05. GAIA: JARDUERA EKONOMIKOA	30
4.6. 06. GAIA: EKI-PAMENDUAK	31
4.7. 07. GAIA: ONDAREA	36
4.8. 08. GAIA: TURISMOA	37
4.9. 09. GAIA: JASANGARRITASUNA ETA KLIMA-ALDAKETA.....	38
4.10. 10. GAIA: INKLUSIBITATEA.....	39
4.11 . Galdera irekiak	45
5. EBALUAZIOA ETA ONDORIOAK	49
1. ERANSKINA ELKARRIZKETAK	50

Dokumentu honetan jasotako partaidetza-prozesua Lur Studioko Jone Belausteguigoitiak diseinatu, koordinatu eta gauzatu du, Createlliko Irati Alonso, Lur Studioko Sofía Hierro eta Createlliko Ane Elizegi eta Irati Zabalo Pérezaren lankidetzarekin. Dokumentu hau ERDUK garatu duen Zumaia HAPOren erredakzioak barne hartzen du.



1. PARTAIDETZA-PROZESUAREN LABURPENA

Dokumentu honek Zumaia Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 1. fasearen (Hirigintza-Informazioa) edukiari buruz herritarrek parte hartzeko prozesuaren emaitzak jasotzen ditu. Prozesua hiru hilabete eta erdiz egon zen irekita, 2020ko martxoaren 10etik maiatzaren 25era.

1.1.1 Aurrekariak eta lan-esparrua

2020. urtearen hasieran, Udala HAPO lantzen hasi zen. 0. fasea amaitu ondoren, Herritarren Partaidetza Programarekin, Hirigintza Informazioko 1. fasea hasi zen. Fase horretan, zumaia guztiei parte hartzeko aukera eskaini zitzaion, udalerriko beharrak bildu eta eztabaidatzeko, eta HAPO berriaren hurrengo fasean, Aurrerakinean, jaso ahal izateko.

Lan-esparruaren helburua parte-hartzearekin hasi baino lehen, herritarrek informatzea izan zen, horrela, partaidetza informatua lortzeko. Ulerterrazagoa egiteko, HAPO berriaren edukiak hamar gaitan egituratu dira eta hedapen-materiala garatu zen (HAPO berriari buruzko web-orria eta informazio-bideoa). Era berean, parte hartzeko hainbat kanal gaitu ziren (digitala, paper bidezkoa eta elkarrizketak) fase honetako ekarpenak jasotzeko eta plan berria aberasteko. Azkenik, aipatu beharra dago partaidetza-prozesuaren emaitzak ezin direla lotesleak izan, HAPOren beraren mugak direla eta.

1.1.2 Partaidetza-prozesuaren deskribapena

Parte-hartzea martxoaren 10ean hasi zen. Prozesuak Covid-19aren ondorioz sortutako egoeraren erronkari aurre egin behar izan zion eta eragina izan zuen bai epeetan eta baita partaidetza-ekintza batzuetan ere. Hortaz, hasieran zehaztutako hilabete pasatzeko epea (apirilaren 4ra artekoa), hiru hilabete eta erdira luzatu zen (ekainaren 25era).


Webgunearen bidez parte hartu ahal izan zen Zumaia HAPOren plataforma espezifikoan (www.hapo-zumaia.eus), paperezko galdetegiaren bidez eta elkarrizketa telematikoen bidez. Covid-19aren eta alarma-egoeraren ondorioz, paperezko galdetegiaren bidezko parte-hartzea baliogabetu egin zen, baita martxoaren 16rako aurreikusitako aurrez aurreko informazio-hitzaldia ere.

Aldi berean, informazio- eta komunikazio-ekintza ugari garatu ziren: hala nola, HAPOk landuko dituen gaien ikonoak eta material grafikoa, prozesuaren webgunea, prentsa-oharra, informazio-bideoa YouTubeko udal-kanalerako, gonbidapen-mailinga eta telefono-deiak elkarte espezifikoekin harremanetan jartzeko.

Guztira, 233 pertsonen parte hartu zuten prozesuan, gehienek bide digitaletik.

1.1.3 Emaitzak eta ekarpenak

Gai desberdinen inguruko parte-hartzea nahiko parekatuta dago. HAPO berrirako, hamar gaiak lehentasuna izan arren, partaidetza handiena izan zutenak mugikortasuna, ingurune naturala eta etxebizitza izan ziren, eta horien atzetik, turismoa, espazio publikoa eta ekipamenduak.



Zumaiako HAPO berriko parte-hartzaileen kopurua gaika

Hona hemen fase honetan, HAPO berrirako ekarpenen laburpena gaika:



01 Ingurune naturala: Oro har, parte-hartzaileen artean adostasun handia dago nekazaritza-intereseko lurzoruak zaintzearen eta Urolako Korridore Naturala kontserbatzearen alde, baita Puntanoetako hezegunea berreskuratzearen alde ere. Adostasun txikiena duen gaia ibaien artifizialtasunaren ingurukoa da, iritzi desberdinak baitaude, horien artean muturrekoak. Ildo horretan, ekarpen ugari jaso dira ibaiak non hobetu daitezkeen jakiteko, baita ezabatu beharko liratekeen landaretza inbaditzailea duten eremuei dagokionez ere (ibaiertzearaino iristen diren nekazaritza-ustategiak, Beduan eta Ardantzako bide publikoetan).



02 Mugikortasuna: Babes- eta adostasun-maila handia izan duten mugikortasunari buruzko gaiak honako hauek dira: Artadi eta Oikia bezalako herriguneekiko komunikazioa hobetzea, bidegorrien eta oinezkoentzako ibilbideen bidez, oinezkoentzako eskola-ibilbide seguruagoak aurreikustea, Itzurungo hondartzara, Santiagoko hondartzara edo Biotopora autoz ez sartzeko, horiek babesteko, eta industrialdeen eta hiriguneen arteko komunikazioa hobetzea. Adostasun txikieneko eta iritzi-aniztasun handiko gaia, nahiz eta batez besteko emaitza aldekoa izan, autokarabanen eremu publiko bat gaitzeko beharrari buruzkoa da.

Aparkalekuari dagokionez, hamarretik 7k erantzun zuten ez dutela ez erosteko ez alokatzeko beharrik. Mapetan, aparkatzeko lehenetsi dituzten lekuak jasotzen dira.



03 Espazio publikoa: Adostasun handia dago auzoetan hurbileko espazio libreak (plazak, haur-parkeak, etab.) eta parke edo berdeguneak areagotzeki dagokionean. Bestalde, Forondaren atzean dagoen berdegunea parke gisa gaitzeak eta Itsasargiko mendia (Talaia mendia) eta haren azpian geratzen den zatia erabilera publikorako gaitzeak adostasun txikiagoa dute, eta % 9-10 inguru ez daude erabat ados. Galdera irekiak eta mapek gehien erabiltzen diren espazio publikoak jasotzen dituzte.



04 Etxebizitza: Parte hartu zutenen erdia jabetza-erregimenean bizi da Zumaian. Hala ere, %23k lehen etxebizitza erostea aurreikusten du, eta % 8k alokatzea. Bi kasuetan, etxebizitza erosteko edo alokatzeko faktore nagusia prezioa da. Gehien gustatuko litzaieken neurria hiru logelatakoa da (hamar parte-hartzailetik seik erantzun du hala). Adostasun handia dago HAPO berriak etxebizitza berriak aurreikus ditzan, eta eredurik egokiena blokeko etxebizitza kolektiboa izan da, eta, adostasun txixieagoarekin, gehienak gizarte-babesekoak izatea. Askotariko iritziak daude lokalak gizarte-babeseko etxebizitza bihurtzeki buruz, nahiz eta gehienek onartu. Parte hartu zutenentzat, etxebizitza berrietarako eremu egokienak Zumaia hirigunekoak dira.



05 Jarduera ekonomikoa: Lehen sektorearekin lotutako jardueri lehentasuna ematea (merkatua, zuzeneko salmenta, etab.) eta ekintzailetzarako espazioen beharra (topaketa, berrikuntza, coworking, etab.) izan dira adostasun handiena lortu duten gaiak. Gainerako gaiek iritzi aniztasun handiagoa eta adostasun-maila txikiagoa dute. Adostasun ertaina dago honako gaien inguruan: merkataritza- eta zerbitzu-jarduera nahiko dagoela esateko, denden gehieneko azalera arautzeko, saltoki txikiei kalterik ez eragiteko, eta merkataritza-gune berririk behar ez dela iritzeko. Industrialetarako lurzoru berriaren beharrari buruz eta landa-ingurunean hirugarren sektoreko jarduerak bultzatzeko beharrari buruz, askotariko iritziak sortu dira. Babes handiagoa du bizitegi-inguruneetan dauden industria-jarduerak industrialetara eramateak.



06 Ekipamenduak: Ekipamenduen gaia da, agian, adostasun-maila txikiena duena, planteatutako gaiak buruzko iritzi aniztasun handia dagoelako. Ez dago adostasun argirik gaur egun Zumaian dauden ekipamenduak nahikoak diren ala ez erabakitzeko, iritzi desberdinak baitituzte, eta baita Santiago hondartzako eta inguruko aisialdiarekin eta turismoarekin lotutako jardueri dagokienean ere. Babes ertain handiena duten gaiak honako hauek dira: HAPOk kiroldegi handiagoa aurreikustea; antzinako tren-geltokia turismo-bulego gisa erabiltzea, eta Algorri interpretazio-zentroaren edota Zumaia industria-ondarearen museoaren bisita-gune gisa; alde zaharri bizi emateko asmoz, komentu zaharrean kultura-ekipamendu bat aurreikustea; eta azkenik, beste asistentzia-ekipamendu bat aurreikustea, adinekoren egoitza gisa.



07 Ondarea: Bai eraikinetan ondarearen babesa handitzeak, baita hirigune historikoko eraikinak beren balio arkitektonikoa babesteko berariaz arautzeak ere nahiko babes adostua dute, ia ez baitago horren aurkako iritzirik.



08 Turismoa: Turismoari buruz iritzi desberdinak daude. Adibidez, Zumaian turismo-jarduera sustatzeari dagokionez, % 26 erabat ados dago eta % 10 erabat desados. Iritzi aniztasun hori ere honako gaitan ematen da: Zumaian ostalaritza gehiegi dagoen, hotel-jarduera gehiago egon beharko liratekeen, nekazaritza-turismoei erraztasun gehiago eman beharko litzaizkiekeen eta apartamentu turistikoak mugatu edo malgutu beharko liratekeen galdetzerako garaian. Iritzi desberdin handia dago, % 10etik gorako ehunekoekin bi muturretan (erabat ados daudenak eta erabat ados ez daudenak). Ibilbideei dagokienez, emaitzak proposatutako aukera guztietan banatzen dira, eta ez dago bereziki nabarmentzen den bat. Itzurun da parte hartu dutenen artean gehien aipatu den hondartza eta gehienetan oinez (hamarretik sei) edo bizikletaz (hamarretik hiru) joaten dira bertara.



09 Jasangarritasuna eta klima-aldaketa: Babes eta adostasun-handia dute klima-aldaketa arintzeko neurriak hartzeak, zehazki mugikortasun iraunkorraren eta energia-eraginkortasunaren bidez. Adostasun txikiagoarekin, baita hiri-baratzeak gehituz ere. Mugikortasun jasangarriko eta eraginkortasun energetikoko neurriek adostasun banatua dute, eta ez da bat ere ez bereziki nabarmentzen. Klima-aldaketari egokitzeak ere babes eta adostasun handia du, eta baita espazio publikoan azpiegitura berdea sustatzeak ere (uholdeen, itsas mailaren igoeraren eta bero- edo lehorte-garaiei aurrean uraren kudeaketa hobetzeko).



10 Inklusibitatea: Bai espazio publikoaren irisgarritasuna hobetzeak, baita auzo batzuetako etxebizitzaren bizigarritasun- eta irisgarritasun-baldintzak hobetzeak ere adostasun handia dute eta mapetan horretarako hainbat kokapen jasotzen dira.

Mapen parte hartu dutenen ekarpenak jasotzen dituzte; gauez saihesten dituzten puntuei dagokienez, kasuen erdietan argiztapen faltagatik. Hala ere, egunez, hamar parte-hartzailetik ia bederatzik esan dute ez dutela lekurik saihesten. Izan ere, mapan hiru toki baino ez daude identifikatuta.

1.1.4 Ebaluazioa eta ondorioak

Oro har, eta, batez ere, Covid-19atik eratorritako aparteko egoera kontuan hartuta, prozesuaren ebaluazioa positiboa da. Lehen fase honetan HAPO berriari ekarpen ugari egin baitzaizkio eta gai guztiei buruzkoak. Nahiz eta informazio-hitzaldia bertan behera utzi eta paperezko galdetegi bidezko parte-hartzea baliogabea izan, parte-hartze digitalak eta telefono bidezko elkarrizketek oso ondo funtzionatu dute.


Prozesuak ekarpenak jaso ahal izan zituen planteatutako hamar gaien inguruan, horietan guztietan parte-hartzea eta planteatutako ia gai guztietan adostasuna lortuz, ekipamendu- eta turismo-gaitan izan ezik, planteatutako gaietako buruzko iritzi anitzekin. HAPO berrirako hamar gaiek lehentasuna badute ere, partaidetza handiena izan zutenak mugikortasuna, ingurune naturala eta etxebizitza izan ziren, eta horien atzetik turismoa, espazio publikoa eta ekipamenduak. Ekarpenei multzo honek HAPO berriaren hurrengo fasean lagungarria izatea espero da, Aurrerakina egiterakoan.

2. AURREKARIAK ETA LAN-ESPARRUA

2.1 Zumaiaiko HAPO berriaren lanketa

Egun Zumaia ez du HAPOrik, Arau Subsidiarioak baizik. **HAPO idaztea, legez nahitaezkoa den** eta, behin betiko onespenera iritsi arte, **hainbat fase** dituen prozesu luze eta konplexu bat da.

2020an, Udala Zumaiaiko HAPO lantzen hasi da. Herritarrek Parte hartzeko Programarekin 0. Fasea osatu ondoren, **1. Fasea Hirigintza Informazioa** hasi berri da. 1. Fase honetan, **parte hartzeko prozesu publiko baten bitartez, zumaiarrei zuzendua, udalerriko premiak jaso eta egiaztatu** ahal izango ditugu. Horiek hurrengo fasean erabilgarriak izango dira, HAPOn Aurrerakina idazteko.



Zumaiaiko HAPOren garapenerako faseak.

2.2 Lan-esparrua: informazioa, partaidetza eta mugak

Lan-esparruaren helburua parte-hartzearekin hasi baino lehen, herritarrek informatzea izan zen, horrela, partaidetza informatua lortzeko. Ulerterrazagoa egiteko, HAPO berriaren edukiak hamar gaitan egituratu dira eta hedapen-materiala garatu zen (HAPO berriari buruzko web-orria eta informazio-bideoa). Era berean, parte hartzeko hainbat kanal gaitu ziren (digitala, paper bidezkoa eta elkarriketak) fase honetako ekarpenak jasotzeko eta plan berria aberasteko. Azkenik, aipatu beharra dago partaidetza-prozesuaren emaitzak ezin direla lotesleak izan, HAPOn beraren mugak direla eta.

Zumaiaiko HAPO berrian parte hartzeko 10 gaiak

Herritarrek erraz uler zezaten, HAPOren ideia nagusiak 10 gairen inguruan antolatu ziren: lehenengo hirurak espazioei buruzkoak dira (ingurune naturala, mugikortasuna eta espazio publikoa), hiru bigarrenak eraikinei buruzkoak (etxebizitza, jarduera ekonomikoa eta ekipamenduak) eta lau hirugarrenak zeharkako gaiak (ondarea, turismoa, jasangarritasuna eta klima-aldaketa eta inklusibitatea). Azalpen orokorr hori herritarren ulermenari errazteko da, eta salbuespen batzuk daude. Adibidez, kirol-ekipamenduetan, eraikin itxia edo aire zabaleko espazioa izan baitaitezke (futbol-zelaia, tenis-pistak, etab.).



Partaidetza-prozesuaren mugak

Herritarren parte-hartzeak HAPOrako ekarpenak eta proposamenak bilduko baditu ere, ekarpen eta proposamen horiek ez direla eta ezin direla lotesleak izan esan beharra dago.

Hori horrela da, alde batetik, azken finean eskumena Udalarena delako, eta, bestetik, HAPOk berak ere hainbat muga dituelako. Parte-hartzea udal-tresna juridiko bat izan arren, udalaz gaindiko erakundeen baldintza ugari izan behar dira kontuan. Izan ere, HAPOk Estatuko, Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko legeria eta araudia bete behar ditu, hala nola, kostei, urei, errepideei, ondareari edo ingurumenari buruzkoak. Etxebizitzaren alorrean, bereziki, HAPOn planifika daitekeen etxebizitza berrien kopurua Eusko Jaurlaritzak arautzen du Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAGen) bidez, baita Lurralde Plan Partzialaren (LPParen) bidez eskualde-mailan.

3. PARTAIDETZA-PROZESUAREN AZALPENA

3.1 Helburuak, metodologia, eragileak eta parte hartzeko moduak

3.1.1 Partaidetza-prozesuaren helburuak

Hirigintzako informazioaren lehen fase honetan parte hartzeak hiru helburu nagusi ditu: berri ematea, egiaztatzea eta gaiak adostea, geroko Aurrerakinaren irizpideak eta helburuak jartzen laguntzeko.

- HAPO berria egiten hasteari buruzko **BERRI EMATEA**, ahalik eta pertsona gehienek eta desberdinek parte har dezaten.
- Abiapuntuko kontuak **EGIAZTATZEA** eta, eginkizun horretan, parte-hartze benetakoa eta eraginkorra erraztea, ikuspegi desberdinak egon daitezen.
- Gaiak **ADOSTEA**, gaien adostasun-maila agerian jartzea, eta teknikoak soilik den ikuspegia gainditzea.

3.1.2 Parte hartzeko metodologia

Prestakuntza, informazioa + partaidetza eta ebaluazioa

Adierazitako helburuak lortzeko, metodologiak elkarren segidako lau etapa ditu: prestatzea, informatzea, parte hartzea eta ebaluatzea.

Prestatzeko etapan, gonbidatuko ziren eragileen mapa, prozesua eratuko zuten gaiak eta komunikazio- eta partaidetza-material guztia garatu ziren. Informazio- eta partaidetza-etapa 2020ko martxoaren 10ean hasi zen. Informazioa batez ere web bidez (www.hapo-zumaia.eus) eta bideo informatibo baten bidez eman zen YouTubeko udal-kanalean. Hasiera batean, martxoaren 16an Alondegian egitekoa zen hitzaldi informatibo bat, baina bertan behera utzi behar izan zuten Covid-19aren ondorioz.

Partaidetza, batez ere, partaidetza digitalaren bidez eta elkarrizketa telematikoen bidez izan zen; elkarrizketa telematikoak egin zitzaizkien agente jakin batzuei eta web bidez eskatu zuten pertsonari. Paperezko galdetegiak prestatu ziren, udaletxean jaso eta entregatu beharrekoak, baina ez zen bat bera ere jaso, ziur aski Covid-19k eragindako egoeragatik. [on-line ere eskura daitezke.](#)

Azkenik, ebaluazio-etapan bildutako ekarpenak bildu ziren eta emaitza-txostena idatzi zen. Ekarpene multzo horrek HAPO berriaren hurrengo fasean laguntzea espero da, Aurrerakina egiterakoan.

3.1.3 Eragile-taldeak

Parte hartzeko prozesua zumaia guztien eskura egon da. Parte hartzeko modu desberdinen bitartez, prozesu honek pertsona eta erakunde hauen ekarpenak bildu ditu:

1. Zumaian bizi direnak
2. Behin-behineko egoiliarak
3. Herriko elkarteak
4. Zumaian lan egiten dutenak
5. Zumaia bisitatzen dutenak
6. Udal-teknikariak
7. Udal-ordezkariek

3.1.4 Parte hartzeko moduak

Ahalik eta herritar gehienek eta desberdinek parte har zezaten, prozesuak parte hartzeko modu desberdinak bateratu zituen. Hurrengo taulan, jorratutako kanalak agertzen dira, bai eta Covid-19aren ondorioz hasieran planteatutakoak eta ezeztatutakoak ere.

PARTE HARTZEKO MODUAK		
1	Partaidetza digitaleko plataforma , prozesu honetarako prestatu dena. www.hapo-zumaia.eus .	199 lagun Martxoaren 10etik ekainaren 25era
2	Elkarrizketak elkarte-sareari eta eskatu zutenei Telefonoz eta telematikoki egindako elkarrizketak	17 elkarrizketak Maiatzaren 11tik uztailaren 25era
3	Paperezko txostenak Paperezko galdetegiak prestatu ziren, udaletxean jaso eta entregatu beharrekoak, baina ez zen bat bera ere jaso, ziur aski Covid-19ak eragindako egoeratik. on-line ere eskura daitezke.	0 paperezko txosten Martxoaren 10etik ekainaren 25era
4	Saio bat UPV-EHUko ikasleekin Arkitekturako 5. mailako ikasleentzako informazio-saioa, Plangintza Estrategikoa irakasgaiaren esparruan, EHUn.	17 lagun Martxoaren 12an
5	Hitzaldi informatiboa Alondetia Kultur Etxea, martxoaren 16an.	Covid-19agatik, hurrengo fasera atzeratuta
6	Bisitaldi gidatuak (hautazkoak) 1. fasean herrian zeharreko oinezkoentzako ibilaldiak egitea aurreikusten zen, HAPOk arautzen duen ingurune naturala eta eraikia hobeto ezagutzeko.	Covid-19ak ezeztatu ditu

3.2 Komunikazioa eta dibulgazio-materiala

Komunikazio-estrategiak bi helburu izan zituen:

- **Informatzea**, partaidetza informatua bermatzeko.
- Ahalik eta parte-hartzaile gehien eta anitzenak **parte hartzera gonbidatzea**.


Taula honetan dibulgazio-materiala jaso da. Prozesuan erabili den komunikazio-material guztia elebiduna izan da eta, gainera, hizkuntza ez sexista bermatu da, indarreko xedapen eta arauen arabera.

DIBULGAZIO-MATERIALA		
1	HAPOren logoa eta leloa. Erraz ezagutzeko modukoa eta Zumaiko esentziari eta prozesuari lotua.	
2	Ikonoak, 10 gaietzat, prozesua partaidetza-kanal gisa egituratzen dutenak.	
3	HAPOren web-orria: www.hapo-zumaia.eus	303 bistaratze webgunera • Hasiera: 303 • HAPO: 259 • Parte-hartzea: 250 • Dokumentazioa: 240
4	Prentsa-oharrak , prozesua abiaraztean.	
5	Udalaren webgunean eta sare sozialean argitaratzea (FB).	
6	Informazio-bideoa Udalaren Youtubeko kanalean. Bideoa.	120 bistaratze
7	Informazio-kartela , prozesuari buruzko informazioarekin, datak eta parte hartzeko bideak.	
8	Gonbidapenerako eta telefono-deietarako mailinga , kolektibo espezifikoekin harremanetan jartzeko.	
9	Hitzaldi informatiborako aurkezpena , prozesuari, gaiei eta eduki garrantzitsuei buruzko informazioarekin.	Ez da erabili, hitzaldia atzeratu izanagatik
10	Prozesuari buruzko memoria , laburpen eta material idatzia eta grafikoarekin, oso bisuala, emaitzak itzultzeko eta zabaltzeko elementu gisa.	



- **Hasiera**
Inicio
- **HAPO (informazioa)**
PGOU (información)
- **Parte hartu**
Participa
- **Galdetegi digitala (lotura zuzena)**
Cuestionario digital

Zumaiaiko HAPO berriaren webgunea




Udaleko Youtubeko kanalean dagoen Bideoa

3.3 Partaidetza-adierazleak

3.3.1 Parte-hartzaileen kopurua eta parte-hartzaileak partaidetza-bideen arabera


Guztira 233 pertsona mobilizatu dira, eta pertsona batzuek kanal batean baino gehiagotan parte hartu ahal izan dute (digitalki eta elkarrizketa bidez). Gainerako kanalekin alderatuta parte-hartzaile digitalen proportzioa handia denez, ez dirudi bikoiztasun handirik dagoenik; pertsona-kopurua mobilizatutako pertsonengandik gertu egongo da.

Hamar parte-hartzailetik zortzik baino gehiagok bide digitaletik egin zuten, HAPOren webgunean prestatutako plataformaren bidez. Gainerako % 15a elkarteei telefonoz egindako elkarrizketei eta Unibertsitateko saioari dagokio.



3.3.2 Parte-hartzaileak, sexuaren arabera


Emakumeen parte-hartzea gizonena baino handiagoa izan zen, % 51 eta % 45, hurrenez hurren. Gainerako % 4a beste nortasun batzuetako pertsonen dagokie.



3.3.3 Parte-hartzaileak, adinaren arabera


Adinaren arabera partaidetza Gaussen kanpai gisa estratifikatzen da, eta adin-tarte handiena 31-45ekoa da; hiru pertsonatik bat baino gehiago. Ondoren, 46-65 eta 18-30 tarteak daude. Parte-hartze txikiena 65 urtetik gorakoek eta 18 urtetik beherakoek izan dute.

Aipatzekoa da 65 urtetik gorako pertsonen ehunekoaren aldea parte-hartze digitalean (% 5), bide digitaletara ohituta egotea eskatzen baitzuen, eta elkarrizketetan (% 17).




3.3.4 Parte-hartzaileak, eragile-motaren arabera

Prozesuan hainbat motatako eragileek parte hartu zuten, gehienak Zumaia-koak (% 64). Ondoren, Zumaia bisitatzen dutenak (% 13), Zumaian lan egiten dutenak (% 10) eta herriko elkarteak (% 8). Parte-hartze txikiena duten agenteak noizbehinkako egoiliarak (asteburuak edota oporrak, % 3), udal-teknikariak (% 2) eta udal-ordezkariek (% 1) dira.




3.3.5 Parte-hartzaileak, bizitokiaren eta auzoaren arabera

Hamar parte-hartzaitetik zortzi udalerrian bizi dira. Gehienak Zumaian (% 76), % 1 Artadin eta % 3 Oikian. Zumaian, berriz, Erdigunean, Aita Mari eta Alain parte hartu zuten gehien.



3.3.6 Parte-hartzaileak, parte hartzeko hizkuntzaren arabera

Hamar pertsonatik zortzik euskaraz parte hartu zuten. Zifra horrek bide digitala eta elkarrizketak bakarrik hartzen ditu kontuan, eta ez du kontuan hartzen Unibertsitateko saioa, parte-hartzeko saioa baino saio informatiboa delako, eta Euskaditik kanpoko eta nazioarteko ikasleak gerturatu zirelako (Erasmus).




4. EMAITZAK ETA HAPO-REN 1. FASEAN EGINDAKO EKARPENAK

Jarraian, kanal desberdinen bidezko galdetegietan bildu diren ekarpenen laburpena egingo da, partaidetza-prozesua egituratu zuten 10 gaien egiturari jarraiki. Gai bakoitzak, modu hauen bitartez bildutako ekarpenen laburpentxoak barne hartzen du:

- Ekarpenen laburpen txiki bat.
- Emaizak adostasun-barraren arabera, eta, hala badagokio, mapak.
- Ekarpen gehigarriak.

Adostasun-barrak irakurtzeko informazio-oharra:

Partaidetza digitalaren emaitza-barrek, digitalki parte hartu zutenek adierazpen batzuen gainean zuten adostasun-maila erakusten dute, honela: guztiz ados (berde oso iluna), ados (berde iluna), ez zait axola (berdea), ez nago ados (berde argia), ez nago batere ados (berde oso argia). Horrela, barrak kolore berde ilun asko badu, adierazpen horren gaineko adostasun-maila handia izango da; berde argi asko badu, aldiz, desadostasun-maila handia izango da, eta iluntasun desberdineko lerroek antzeko luzera badute, iritziak desberdinak direla esan nahi izango du eta, hortaz, adierazpenaren gaineko adostasun-maila txikia dela.




Adostasun-barra, argibide gisa

Zumaiako HAPOrako gaien artean sortutako interesa fase honetan

Gai desberdinetan parte-hartzea nahiko parekatuta dago. Hamar gaiek dute lehentasuna HAPO berrirako, baina partaidetza handiena izan zutenak mugikortasuna, ingurune naturala eta etxebizitza izan ziren, eta horien atzetik, turismoa, espazio publikoa eta ekipamenduak.

Zumaiako HAPO berriko parte-hartzaileen kopurua gaika






4.1 01. GAIA: INGURUNE NATURALA

Oro har, parte-hartzaileen artean adostasun handia dago nekazaritza-intereseko lurzoruak zaintzearen eta Urolako Korridore Naturala kontserbatzearen alde, baita Puntanoetako hezegunea berreskuratzearen alde ere.

Adostasun txikiena duen gaia ibaien egoera artifizializatua da; izan ere, iritzi desberdinak daude, muturrekoak barne (% 9 erabat ados dago oso artifizializatua daudela esatearekin eta % 6 erabat ados ez daudela esatearekin). Ildo horretan, ibaiak hobetzeko hainbat ekarpen jaso ziren, oro har, parke eta lorategi guztiak mantentzeari buruzkoak, eta, bereziki, garbiketa handiagoari buruzkoak, Narrondo ibaia, Urola ibaia eta Gernika parkea bezalako lekuetan.

Kendu beharko litzatekeen landaretza inbaditzailea duen eremuren bat egoteari dagokionez, ekarpenek nekazaritza-ustategiak ibaiertzeraino iristen diren eremuei erreferentzia egiten diete, Beduan eta Ardantzako bide publikoetan.



- Gasteizen edo Zarautzen bezala, herria inguratuko lukeen eta herriaren hazkunderari muga jarriko liokeen eraztun berde/urdin moduko bat lortu beharko genuke
- Kontaminazioak hobetzeko Narrondon eta erreka ondoetan metalak hondakin industrialak. eta horrek eragiten
- Itsasadar osoa sarriago garbituz. Gero eta lohi gehiago dago eta, beraz, sakontasun gutxiago. Horrek dakarrenarekin
- Eraikita daona natural dagona mantentzea. deruako industrigunean garai baten betelan bat in zan zalaeta zona hori betelan hori naturalizatzeko pausoa
- Industria gunean, autopista egin zenean industrialdearekin txoke handia dago. - Kirol portuan, lehen padura zen zonalde hori.
- Urola babes plana berreskuratu eta indarrean jarriko nuke
- Gernikako parkea.

- Ez dakit, Eta erantzun hau faltan botatzen dut ze, adibidez, hezegunearen galderan "ez dakit" erantzuna aukeratuko nuke, benetan hala baita nire ezjakintasuna baina galdeketak ez du aukera hori ematen. Hala ere, hezegunearen beharra Eta etxebizitzaren eskaera ere baloratzekoa litzateke nire ustez.
- Garbi eta oztoporik gabe mantentzea behintzat.
- Parke eta lorategi guztien mantentze-lanetan Bedua zumaialdera. Trenbide inguruan, bariantea disimulatzen
- Narrondo ibaian, Gernika Parkearen aldameneko zubiaren parean, altura bateraino presa edo eskulua jartzea ondo ikusiko nuke; horrela zubitik gorantz egun guztian ibaia urak estalita egongo litzake itxas beheran ere, eta itxas gorenean orain bezela. Hau Frantziako Bretainan oso zabalduta dago, Lurralde laua denez, itxasoa kilometro askotaraino sartzen da ibaia zehar barrukalderaino,
- Ibaia ibilguak garbitzean, hainbat eremutan, hala nola Oikian (Erromatar zubia), ura igarotzea oztopatzen duten zuhaitzak kenduta. Eztakit
- Ingurunearen garbiketan
- Nire iritziz gehiago garbitu beharko lirateke ibai bazterrak, urtean bitan behintzat hauetan aurkitzen den plastikoa eta abar luze bat kentzeko. Hasi Zumaia eta ibaia haurrera Zumaia (auzo eta herriari) dagokion zatian. Honela asko ez bada ere artifizialtasun apur bat kenduko diogu.
- Ingurune naturalak ezagutarazteko ibilaldiak antolatu eta gidetan erakutsi beharko lirateke.
- Herriguneetan
- Urola ibaia dagokionez, Oikia aldetik hasita nahiko "natural" mantentzen direla esango nuke, depuradura pare aldera arte iritsi arte. Behin arraun elkartetik aurrera nahik artifizialduta dagoela uste dut, bai. Baina egia da herriaren forma dagoeneko horrela dela eta hori aldatzea zaila ikusten dut. Bestalde, Narrondo ibaia dagokionez GKN paretik hasi eta itsasoratu arte guztiz artifizialduta dago. Aurreko kasuan bezala, hobetzeko modua ez nuke jakingo zein den esaten.. Ibai bazterretan zuhaitz eta berdegune nabarmenagoak ezartzea agian (Gernikako parkean ibai-bazterra dagoen moduan)?
- Gernikatik, Egurkoraino.
- Ondo ikusten ditut.
- Isuriak murriztu eta isuri 0 helburua ezarri.

Kendu beharreko landaredi inbaditzailea duen guneren bat dagoela uste baduzu, adierazi non dagoen.

- Pentanoetan (gehiago hedatu baino lehen), Gorostiagako betelanean, Xey industriagunean, itsaslabarretan ere ari dira agertzen, Santiagon kendutakoa berrir gora dator, ibai ertzetan...
- Ez
- Punta
- Santixoko dunetan
- Santiyoko gunetan aktuaziok baina ez dakit
- Oikia inguruko nekazal hustiaren gunean, ibai ertzean. Bambu kañaberak daude eta ez du uzten beste espezie batzuk hazten. Ondo legoke udalak bertako landaredia babestu eta bultzatzeko proposamenak abian jartzea.
- Nekazal ustiaren ibaiertzearaino heltzen diren lekuetan. Zuhaitzak landatu beharko lirateke, ibaiertzeko ekosistema indartzeko, ekosistemarik interesgarriena delako
- Bedua, Santixo
- Ez dakit, ez ditut landare hauek ezagutzen.
- Puntanoetatik bedualdera
- Landare inbaditzaileak dagoen ez dakit baina Ardantzako herri bideetara belarra eta zuhaitzak moztera maizago etorri beharko zinaketela uste dut.
- Bai. Bedua pare hortako belarguneetan landaredi inbaditzailea nabarmena da




4.2. 02. GAIA: MUGIKORTASUNA

Babes eta adostasun handiagoko mugikortasunari buruzko gaiak honako hauek dira: Artadi eta Oikia bezalako herriguneekiko komunikazioa hobetzea, bidegorrien eta oinezkoentzako ibilbideen bidez; oinezkoentzako eskola-ibilbide seguruagoak aurreikustea; Itzurungo hondartzara, Santiagoko hondartzara edo Biotopora autoz ez sartzea, horiek babesteko; eta industrialdeen eta hiriguneen arteko komunikazioa hobetzea.


Adostasun eta iritzi aniztasun txikieneko gaia, nahiz eta batez besteko emaitza aldekoa izan, autokarabanan eremu publiko bat gaitzeko beharra da, % 32 erabat ados eta % 30 ados baitago, baina % 15 erabat desados.

Aparkalekuen antolamenduari eta beharrari dagokienez, erdiek erantzun zuten ez dutela aparkalekurik, eta aparkalekua dutenen artean, gehienak jabetzakoak dira. Beste aldetik, hamarretik zazpi erantzun zuten ez dutela ez erosteko ez alokatzeko beharrik. Mapek aparkalekuak alokatzeko edo erosteko lehenesten dituzten lekuak eta falta diren bidegorri-zatiak jasotzen dituzte.




Aparkalekurik erosi edo alokatu nahi izanez gero, non egotea nahiko zenuke?


Puntu bat ezabatzeke egin bi aldiz klik ikonoan. Mugitzeko arrasta ezazu puntua beste leku batera.




Zer bidegorri-tarte falta dira Zumaian, zure ustez? Adierazi mapan




Zoom 1: Falta diren bidegorri-zatiak




Zoom 2: Falta diren bidegorri-zatiak



Zoom 3: Falta diren bidegorri-zatiak



Zoom 4: Falta diren bidegorri-zatiak





4.3. 03. GAIA: ESPAZIO PUBLIKOA

Adostasun handia dago auzoetan hurbileko espazio libreak (plazak, haur-parkeak, etab.) eta parke edo berdeguneak areagotzeari dagokionez. Bestalde, Forondaren atzean dagoen berdegunea parke gisa gaitzeak eta Itsasargiko mendia (Talaimeidi) eta haren azpian geratzen den zatia erabilera publikorako gaitzeak adostasun txikiagoa dute, eta % 9-10 inguru ez daude erabat ados.

Galdera irekiak eta mapek gehien erabiltzen diren espazio publikoak jasotzen dituzte.

Zure ustez, beharrezkoa da HAPO berriak parke edota berdeguneak handitzea?

1 / 2 / 3 / 4 / 5

3% 3% 5% 41% 47%

Zure ustez, beharrezkoa da HAPO berriak gertuko espazio libreak handitzea auzoetan (plazak, umeen parkeak, etab.)?

1 / 2 / 3 / 4 / 5

2% 4% 11% 40% 43%

Zure ustez, Foronda atzeko berdegunea parke moduan egokitu beharko litzateke?

1 / 2 / 3 / 4 / 5

10% 10% 16% 33% 32%

Zure ustez, Paroleko mendia eta azpiko eremua erabilera publikora irekitzeko moduan ipini beharko lirateke?

1 / 2 / 3 / 4 / 5


9% 5% 19% 34% 33%

Zure aisialdian, zein espazio publiko erabiltzen dituzu sarritan?


- Nire iritziz, Udaletxeak ez du plazak haunditu behar, han bizi garenen bizi kalitatea hobeto zaindu baizik. Herriko plaza asko orain ez dira leku politak, lasai eta goxo egoteko. Ondartxo plaza, adibidez.
- Hondartza, plazak, pasealekuak
- umeen parkeak, kanpako zelaia, hondartzak, mendia...
- Gernika parkea, frontoiko berdegunea, forondako gunea, playa
- Haurrak ditudanez, parkeak, zelaia, hondartzak, plazak...
- Gernika parkea, Amaiako plaza nagusiki, tarteka beheko plaza. Santixoko dunak paseo nahiz korrikarako.
- Estalpeak behar dira
- Paseatzeko lekuak (paolera eta Santio aldera, adibidez), Amaiako plaza eta hondartzak.
- - Herria bera - Portua - Santiagoko hondartza, - Itzurun - Depuradorako bidea
- Victoriano Arrateko plazoletak, parke Marianton.
- Gehiago paseatzea gustatze zait herri bideetan, baserrietan.
- - Ibai ertzeko paseak - Gernika parkea - Santioko zonaldea - padura - Amaiako plaza eta behekoa
- Naturguneak (mendi ibilbideak, hondartzak) eta pasealekuak
- Gernika parkea
- - Oinez edo kirola egiteko erakargarriak diren guneak (Urola ibaiaren 2 aldeak, kirol portua, artadi,...). - Edozein ekintza egiteko malgutasuna eskeintzen duten guneak, beheko plaza adibidez.
- Parkeak (4 aldiz)

- Gernikako parkea
- Orain ez handiak direlako, baina nire seme-alabak txikiak zirenean, egunero haur parke estaliak botatzen nituen faltan, Zumaiko haurrentzat beharrezkoak direla uste dut. Amaiako plaza, Ondartxo plaza, Gernika parkea, Julio Beobide ibiltokia ,beheko plaza
- Amaiako plaza eta Zumaiana ikastolan dagoen parkea
- Guk ez dugu ume txirikik eta askotan mendira joaten Gara, baina bai aipatu nahi nuke, negu garaian, oso egokia izango litzatekela pilotalekua zabaltzea umeentzat. Hamabost urtetan bizi izan naiz Legazpin Eta neguan ordu asko egin ditugu pilotalekuan jolasean. Urretxukoa ere badira hogeitaka urte zabaltzen dela umeentzat negu garaian. Gainerakoan esango nuke Zumaian baditugula parkeak etabar baina beti dago zer hobetu.
- Haurrentzako parkeak erabiltzen ditugu.
- Guztiak pasiatzeko eta arnasa hartzeko.
- Paol bidea, amaiako plaza
- Bidabe azpiko parkea
- Lorategiak / parke berdeak
- Aitamari aldera, eta puntanetara
- Santiago ondartzak, Paolbidea, Amaiako plaza.
- Espazio publikoen kopurua handitzea baino gehiago, urtean zehar egun gehiagotan erabili ahal izateko sistemaz hornitzeko beharra ikusten dut. Adibidez, euri-egunetarako estaltzea. Egundoriek ugariak izan ohi dira, eta erabilera anitzekoak, hainbat jardueratarako erabil daitezkeenak, eta, horrela, espazio horiei "bitxiagoa" eman ahal zaie.
- Ondartzak. Txakurrak lotuta mesedez
- Gernikako parkea
- Plaza amaia. Esta desastroso. Itzurun
- Paol aldea, itzurun hondartzak, santioko bidea, gernika parkea..erribera kalea
- Arranpla, kanpa, kirol portua, haur parkeak...
- Plazak, Herri Eskolako jolastokia
- Amaia Plaza, Beheko plaza, ondartxo plaza
- Parkeak ibiltzeko pasealekuak
- Berdeguneak eta parkeak
- Oikiako parkea
- Parkeak. Zumaia duen klimarekin eskertuko litzateke estalitako bat izatea.
- Zumaiko umeentzako parke guztiak.
- Hondartzak
- Sagarbideko frontoia eta kantxak
- Amaiako plaza, arranpla....
- Sagarbide eskolako lekuak, hau da, frontoia eta bere ingurua; beheko plazako parke, frontoi edo plaza bera; amaiako plaza, Ernio taberna aurreko plazeletak,...
- Algorri
- Amaiako plaza
- Herriko paseoetan zerhar paseatzen dut
- Hondartzak
- Amaiako plaza
- Paolaldea (Inpernupe)
- Amaiako parkea. Ibai ondoan paseoa. Paolaldetik egurkoaino. Ardantzabide ingurua...
- Haur-parkeak

Zure aisialdian, zein espazio publiko erabiltzen dituzu sarritan?




Zoom 1: Denbora librean gehien erabiltzen diren espazioak (mapa eta iruzkinak)




3 Itzurun	6 Inpernupe		
9 Ez dakit non, baina PARKE ESTALI bat proposatuko nuke, eguraldi txarrarekin uimeek jolas dezaten.			
11 Plaza gorria	12 Ibai ertzeko paseoak	14 Santiagoko hondartza	23 Padura
28 Amaia plaza	29 Amaia plaza	31 Haur parkea	37 Herria bera

Zoom 2: Denbora librean gehien erabiltzen diren espazioak (mapa eta iruzkinak)



- | | | |
|--|--|-----------------------|
| 39 Portua | 43 Erribera, beheko plaza, Paol bidea | 46 Bebelo plaza |
| 52 Kanpa | 54 Berdegune gehiago bidegorrian zehar | |
| 56 Gernika | 57 Gernika parkea | 76 Alaieko parkea |
| 77 Frontoi ingurua | 78 Herri Eskolako jolastokia | 79 Patio Herri Eskola |
| 80 Hemen parke berde bat dago frontoiaren aurrean. | | |

Zoom 3 : Denbora librean gehien erabiltzen diren espazioak (mapa eta iruzkinak)



- 84 Depuradorako bidea



4.4. 04. GAIA: ETXEBIZITZA

Parte hartu zutenen erdia jabetza-erregimenean bizi dira Zumaian (% 53), % 20 senitartekoekin, eta % 17 alokairuan. Halaber, % 23k lehen etxebizitza erostea aurreikusten du eta % 8k alokatzea. Etxebizitza bat erosteko edo alokatzeko faktore nagusia prezioa da bi kasuetan (% 29 eta % 36, hurrenez hurren), eta ondoren kalitatea. Gehien gustatuko litzaien tamaina hiru logelatakoa da (hamar parte-hartzailetik seirentzat).

Adostasun handia dago HAPO berriak etxebizitza berriak aurreikus ditzan, eta eredurik egokiena blokeko etxebizitza kolektiboak dira. Adostasun txikiagoarekin agertu da, gehienak Babes Sozialekoak izatea.

Lokalak Babes Sozialeko etxebizitza bihurtzeari dagokionez, hamar pertsonatik seik babesten dute, hamarretik batek ez du onartzen, eta hirutik batek onartzen du, baina etxebizitza libre gisa.

Azkenik, HAPO berriak komunitatean etxebizitza berriak egiteari dagokionez (cohousing, egoitza komunitarioak, zuzkidura-bizitokiak, etab.), batez besteko babesa positiboa da, baina iritzi ugari daude, adostasun handiegirik gabe.

Mapak parte hartu zutenen ustez etxebizitza berrietarako egokienak diren eremuak jasotzen dituzte. Gehienak Zumaia eremukoak dira.







HAPO berriak etxebizitza berriak aurreikustekotan, zein eremu izango litzateke egokiena, zure ustez?



Zoom 1: Etxebizitza berrietarako eremu egokienak



Zoom 2: Etxebizitza berrietarako eremu egokienak





4.5. 05. GAIA: JARDUERA EKONOMIKOA

Babes eta adostasun handiena lortu zuten gaiak hauek izan ziren: lehen sektorearekin lotutako jardueren lehentasuna ematea (merkatua, zuzeneko salmenta, etab.) eta ekintzailetzarako espazioen beharra (topaketa, berrikuntza, coworking, etab.).

Gainerako gaiak iritzi aniztasun handiagoa eta adostasun maila txikiagoa dute. Adostasun ertaina dago honako gaien inguruan: merkataritza- eta zerbitzu-jarduera nahiko dagoela esateko, denden gehieneko azalera arautzeko, saltoki txikiei kalterik ez eragiteko, eta merkataritza-gune berririk behar ez dela irizteko.

Industrialdeetarako lurzoru berriaren beharrari buruz eta landa-ingurunean hirugarren sektoreko jarduerak bultzatzeko beharrari buruz, askotariko iritzia sortu dira. Babes handiagoa du bizitegi-inguruneetan dauden industria-jarduerak industrialdeetara eramateak.





4.6. 06. GAIA: EKIPAMENDUAK

Ekipamenduen gaia da, agian, adostasun-maila txikiena duena, planteatutako gaiei buruzko iritzi aniztasun handia dagoelako. Ez dago adostasun argirik gaur egun Zumaian dauden ekipamenduak nahikoak diren ala ez erabakitzeke, iritzi desberdinak baitituzte, baita Santiago hondartzako eta inguruko aisialdiarekin eta turismoarekin lotutako jardueri dagokienez ere.


Hauek dira batez besteko babes handiena duten gaiak:

- HAPOk kiroldegi handiagoa aurreikustea
- Tren geltoki zaharra turismo bulegoa izatea, Algorri interpretazio zentroko edota Zumaia industri-ondarearen museoko bisiten lehen gunea.
- Alde zaharrari bizia emateko, komentu zaharrea kultura-ekipamendu bat aurreikustea.
- Adinekoentzat asistentzia-ekipamendu berri bat aurreikustea.




Nahikoak ez direla ustez gero, zein ekipamendu edo zerbitzu publiko proposatuko zenuke eta non? Adierazi mapan

Puntu bat ezabatzeko egin bi aldiz klik ikonoan. Mugitzeko arrasta ezazu puntua beste leku batera.



Zoom 1: Proposatutako ekipamendu edo zerbitzu publikoak (mapa eta iruzkinak)



2 Kumunak urte guztian. WC

3 Gernikako pasealekuan eta Trenbide pasealekuan aisialdi-guneak (mahiak, etab.

5 Paseatzeko eta korrika egiteko gune bat, Done Jakueren dunetan. Babestu beharreko eremua egokituz eta behar bezala hesituz, eta argiz, urez eta ordu batera arteko erabilera duen gym-zona batez hornituz.

6 Txakurrak lotuta

9 Ez dakit non, baina PARKE ESTALI bat proposatuko nuke, eguraldi txarrarekin umeek jolas dezaten.

11 Kajero bat


13 Kulturgunea

14 Kulturgunea

15 Aterpea (erronesentzat nahiz bestelakoentzat)

18 Santiago Auzoan, Guascor-eko edifizioan, Auditorium bat

Zoom 2: Proposatutako ekipamendu edo zerbitzu publikoak (mapa eta iruzkinak)



20 Lanbide zerbitzua

21 Kultur gunea

23 Gaztelekua handitu eta ekipamendu gehiago jarri

25 Gune honi bizitza gehiago. Gune publikoa, kulturala... erabilera eman behar zaio eraikinari eta inguruari, jende asko ibili eta pasatzen da bertatik.

26 Anbulatorio zaharra

27 Turismo bulegoa

28 Foronda eraikinaren zati bat turismorako zabaltu (kafetegia, begiralekua, musika saioak, etab.

29 ADMINISTRATIBOAK

31 Haurreskola

33 Azoka: garaiko produktuak eta elikagai freskoak erosteko gunea

34 Haur parke estali bat edo kirol anitzetarako ekipamenduak (saskibaloi eta Futboleko kantzak, frontoi txikiak....

35 Piraguismoarentzat instalazioa

36 Arraunlarientzat instalazioa

39 Umerentzako jolasguneak, ariketa fisikoa egiteko guneak, etab

40 Kiroldegia handitu

41 Larrialdi zerbitzua.

42 Igerileku haundiagoa

43 herri eskolaren ekipamendua egokitu

45 Barrakak

47 polikiroldegia hemen jarriko nuke. Egurko botata 48 Kiroldegian leku falta handia dago

49 egiturak eguneratu

51 Espazio estali oso gutxi. Herri Eskolako frontoia eta Juleneko gune estaliak ongi funtzionatzen dute. Herrian orokorrean gune estali oso gutxi, batez ere parkeetan: Amaia plaza, Arrangoletako haur eskola ingurua, Alai auzoko Eroski atzeko plaza horietan ere jende ugari ibiltzen da.

53 Kiroldegia handitu


54 Kiroldegian igerilekua behintzat txiki geratu da

55 Zumaia Herri Eskola

56 KIROL GUNEA


57 Igrilekua eta polikiroldegi handi bat

Zoom 3: Proposatutako ekipamendu edo zerbitzu publikoak (mapa eta iruzkinak)



62 Azaldu hemen.

Zoom 4: Proposatutako ekipamendu edo zerbitzu publikoak (mapa eta iruzkinak)



63 Ez dago indoor-instalaziorik hainbat jarduera egiteko. Eskola zaharra sarbide libreko kultur zentroa izateko gaitu ahal izango litzateke. Eguraldi txarra egiten duenean, jendea elizako atarian egoten da hotza pasatzen

64 Eraikin funtzio anitz bat: Gaztetxe, gimnasio, liburutegi, bilera gela... Auzoak bere izakera eta nortasuna galdu ez dezan. Bere indarra bermatu dezan, eta bizitza izan dezan. Behar beharrezkoa da duen bizitza ez galtzea herriak arima izan nahi badu.

65 Skatepark bat ekarri behar entzuna nuen, baina ez da ezer iritsi. Ekipamendu gehiago edukitzeak bizia ematen die auzo txikiei.


Zure aisialdian, zer ekipamendu erabiltzen dituzu sarritan?

- Polikiroldegia, Maria eta Joseren gimnasioa, bidegorriak, paseoak, hondartzak
- liburutegia, kulturgunea
- liburutegia, forondako kurtsoak,
- Kiroldegia haurrak igerilekura eramateko, aldagelak nahiko txiki geratzen dira hora puntetan. Liburutegia, ipuin kontaketa, eskola...
- Kiroldegia eta urpekaritza-zentroa (arraun-klubaren ondoan)
- Itsasoko pabiloia edo arraun-pabiloia deitzen diotena
- Kultur etxea eta kiroldegia
- Oso gutxi. Gehien erabiltzen direnak egietza maila, Hogarra erabili izan degu Alhondegira ere bai.
- Umeak Herri Eskolara joaten dira eta bertako jantokia handitzea behar-beharrezkotzat jotzen dut
- Polikiroldegia maiztasunakin , liburutegia tarteka
- Kultur eskaintzak
- - Paseatzera ateratzen naiz herri guztitik - Ekipamendu bezela, Torreberri dantzarako eta eskolako gimnasioak ensaiotarako.
- Polikiroldegia, Eskubaloia praktikatzeko ez daukagu lekurik estapletan, bakarrik polikiroldegia, eta txikia geratu da
- kiroldegia
- Liburutegia, kiroldegia
- kiroldegia eta Foronda kutlurgunea



4.7. 07. GAIA: ONDAREA


Bai eraikinetan ondarearen babesa areagotzeak, bai hirigune historikoko eraikinak beren balore arkitektonikoa babesteko berariaz arautzeak nahiko babes adostua dute, ia ez baitago horien aurkako iritzirik.





4.8. 08. GAIA: TURISMOA

Turismoari buruz iritzi desberdinak daude. Adibidez, Zumaian turismo-jarduera sustatzeari dagokionez, % 26 erabat ados dago eta %10 erabat desados. Iritzi aniztasun hori ere honako gaitan ematen da: Zumaian ostalaritza gehiegi dagoen, hotel-jarduera gehiago egon beharko lirakekeen, nekazaritza-turismoei erraztasun gehiago eman beharko litzaizkiekeen eta apartamentu turistikoak mugatu edo malgutu beharko lirakekeen galdetzerako garaian. Iritzi desberdinak daude, % 10etik gorako ehunekoekin bi muturretan (erabat ados daudenak eta erabat ados ez daudenak). Ibilbideei dagokienez, emaitzak proposatutako aukera guztietan banatzen dira, eta ez dago bereziki nabarmentzen den bat. Itzurun da parte hartu dutenen artean gehien aipatu den hondartza, eta gehienetan oinez (hamarretik sei) edo bizikletaz (hamarretik hiru) joaten dira bertara.





4.9. 09. GAIA: JASANGARRITASUNA ETA KLIMA-ALDAKETA

Babes eta adostasun handia du klima-aldaketa arintzeko neurriak hartzeak, zehazki mugikortasun iraunkorraren eta energia-eraginkortasunaren bidez. Adostasun txikiagoarekin, baita hiri-baratzeak gehituz ere. Mugikortasun jasangarriko eta eraginkortasun energetikoko neurriek adostasun banatua dute, eta ez da bat ere ez bereziki nabarmentzen.

Klima-aldaketari egokitzeak ere babes eta adostasun handia du, baita espazio publikoan azpiegitura berdea sustatzeak ere (uholde, itsas mailaren igoera eta bero edo lehorte garaletan uraren kudeaketa hobetzeko).

Zure ustez, beharrezkoa da HAPO berriak klima-aldaketa arintzeko neurriak jasotzea, mugikortasun jasangarriaren bitartez?

1 / 2 / 3 / 4 / 5

3% 8% 26% 63%

Zure ustez, mugikortasun jasangarriaren bitartez klima-aldaketa arintzeko hurrengo neurrien artean, zeintzuk dira egokienak?

Auto bidezko mugikortasuna txikiagotu / Bizikleta eta oinezkoen mugikortasuna erraztu, batez ere jende gehien ibiltzen den jarduera-zentroetara (aisialdikoetara, jarduera ekonomikoetara, asistentzialetara, etab.) / Garraio publikoa, edo beste neurri batzuk (aizotaxi, etab.) erraztu. Hirigunetik urruneko guneei zerbitzua emateko. / Mugikortasun jasangarriko plana diseinatu / Bestelakoak (zehaztu)

21% 33% 22% 23% 1%

Zure ustez, beharrezkoa da HAPO berriak klima-aldaketa arintzeko neurriak jasotzea, energia eraginkortasunaren bitartez?

1 / 2 / 3 / 4 / 5

3% 6% 36% 56%

Zure ustez energia-eraginkortasunaren bitartez klima-aldaketa arintzeko hurrengo neurrien artean, zeintzuk dira egokienak?

Bero-isolamendua hobetzeko neurriak bultzatu egungo eraikinetan / Energia berriztagarriak bultzatu eraikin berrietan / Energia berriztagarriak sustatu egungo eraikinetan / Lurzoru urbanizazinean instalazio mini-eolikoak baimendu / Udalerriko auditoretza energetiko bat egin / Estalki berdeak bultzatu / Fatxada berdeak bultzatu / Bestelakoak (galdera irekia)

19% 19% 20% 7% 14% 10% 9% 2%

Zure ustez, beharrezkoa da HAPO berriak klima-aldaketa arintzeko neurriak jasotzea, hiri-baratzeak handituz?

1 / 2 / 3 / 4 / 5

6% 10% 30% 24% 31%

Zure ustez, beharrezkoa da HAPO berriak klima-aldaketara egokitzeak neurriak jasotzea, (gerta litekeen uholde, euri gogor, lehorte, eta beste hainbatetan aurrean)?

1 / 2 / 3 / 4 / 5

3% 1% 13% 27% 56%

Zure ustez, egokia da HAPO berriak azpiegitura berdea espazio publikoan bultzatzea (uraren kudeaketa hobetzeko, gerta litekeen uholde, itsaso-mailaren igoera eta bero garai edo lehorteetan aurrean)?

1 / 2 / 3 / 4 / 5


3% 3% 7% 27% 60%




4.10. 10. GAIA: INKLUSIBITATEA

Bai espazio publikoaren irisgarritasuna hobetzeak, baita auzo batzuetako etxebizitzaren bizigarritasun- eta irisgarritasun-baldintzak hobetzeak ere adostasun handia dute eta mapetan horretarako hainbat kokapen jasotzen dira.


Mapek parte hartu dutenen ekarpenak jasotzen dituzte; gauez saihesten dituzten puntuei dagokienez, kasuen erdietan argiztapen faltagatik da. Hala ere, egunez, hamar parte-hartzaitetik ia bederatzik esan dute ez dutela lekurik saihesten. Izan ere, mapan hiru toki baino ez daude identifikatuta.




Zehazki, non?



Zoom 1: Espazio publikoaren irisgarritasuna hobetzeko beharra duten lekuak




Zoom 2: Espazio publikoaren irisgarritasuna hobetzeko beharra duten lekuak




Zure ustez, beharrezkoa da HAPO berriak auzo batzuetako etxebizitzaren bizigarritasun- eta irisgarritasun-baldintzak hobetzea?

1 / 2 / 3 / 4 / 5
 3% 1% 16% 33% 47%


Zehazki, non?



Zoom 1: Etxebizitzaren bizigarritasuna eta irisgarritasuna hobetzeko beharra duten lekuak



Zoom 2: Etxebizitzen bizigarritasuna eta irisgarritasuna hobetzeko beharra duten lekuak




Gauetz, Zumaia lekuren bat saihesten al duzu?

Ez dut lekurik saihesten / Bai, argitasun faltagatik / Bai, leku bakartua delako / Bai, jenderik ez dagoelako / Bai, oinezkoen mugikortasuna ez delako segurua / Bai, irisgarritasun faltagatik / Bai, gerta litezkeen delituei beldurra izateagatik (lapurreta, eraso fisikoa, etab.) / Bai, abandonatuta egoteagatik

51% 16% 12% 9% 9% 3%

Zehazki, zein?



2 Argitasun faltagatik - Udaletxe atzea

5 Falta de iluminación

6 Gertatu litezkeen delituei beldurra izateagatik – Gernika

8 Leku bakartua delako

9 Jenderik ez dagoelako -

Batzuetan ilun xamar egoten da eta jende gutxi izaten da, gainera, errepidea alboan izanda igarotzen den auto, furgoneta, motor... bakoitzeko segurtasuna galtzen da. Zoritzarrez etxera joateko bidea da.

11 Gertatu litezkeen delituei beldurra izateagatik

12 Gertatu litezkeen delituei beldurra izateagatik


13 Leku bakartua delako

Egunez, Zumaiako lekuren bat saihesten al duzu?

☐ Ez dut lekurik saihesten / ☐ Bai, argitasun faltagatik / ☐ Bai, leku bakartua delako / ☐ Bai, jenderik ez dagoelako / ☐ Bai, oinezkoen mugikortasuna ez delako segurua / ☐ Bai, irisgarritasun faltagatik / ☐ Bai, gerta litekeen delituei beldurra izateagatik (lapurreta, eraso fisikoa, etab.) / ☐ Bai, abandonatuta egoteagatik

87% 3% 1% 3% 1% 3% 1%


Zehazki, zein?



2 Jenderik ez dagoelako - Musika Eskolaren goiko aldea, Foronda eta araztegiako bidegorriaren gunea

4.11. Galdera irekiak

Egungo Arau Subsidiarioei dagokienez, lau parte-hartzaitetik hiruk ezagutzen dituzte, eta hainbat iritzi daude horiek aplikatzeko erraztasunari buruz, adostasunik gabe. Galdera irekien emaitzek auzoetako eta herrietako hobekuntza-ekarpenak jasotzen dituzte.



Alai

- Oinezkoentzako gunea hobetzea (espaloiak)
- Haur-parkeak
- Aparkaleku gehiago
- Aurreko berdegunea antolatzea.
- Jendearentzako ibilbideak ondo finkatzea: Alaiko torreetatik estaziora, Eroski aldera, e.a.
- zuhaiztiak handituko nituzke parkean
- asfaltoa gutxitu eta zuhaizti naturalak landatu, itzala eta natura berreskuratzeko

Alde zaharra

- Aparkamenduak, irisgarritasuna, komertzioaren bultzada

Ardantza

- 1- Zanga (bideko errekatxoa) itxi eta ubide egokiak jartzea gure hondakinak ere gainontzeko zumaia guztien toki berera joan daitezen.
- 2- Farolak eta horien kableak berritu edo egokitu, mila urtean ez baitira ukitu.
- 3- Turistentzat eta gainontzeko Zumaia-arentzat zabor ontziak eskuragarri jarri
- 4- Algorrik itsasoak duen arriskuaz jakinarazten duen kartelen bat jarri.
- 5- Posta etxeetara iritsi dadila.
- Gainontzeko auzoen arreta bera eskuratzea da gure xede bakarra Zumaia-ko herritar garen heinean, galdetegi honetarako ere ez gaituzue eta kontuan hartu auzo ezberdinak azaldu eta geurea hautatu behar dugun momentuan.

Ardantzabidea

- Kamioen karga/deskargak
- Aparkaleku falta
- Supermerkatuak hornitzeko kamioien joan-etorria eta Larretxo alderako irisgarritasuna
- Gure auzoa bukatu gabe dago, badakigu etxeak bukatzeko daudela baina oraindik fibra sartu gabe dago, kamioi araso aundiarekin segitzen dugu eta konpobiderik gabe oraindik. Beti esaten dezue aunarketan zaudetela baina usten det naiko aunartu dezuela. BMrako leku bat egin behar dela usten det bere kamioei deskarga egiteko eta Eroskiko deskarga bere aurrean egin.
- Rokodromo aurrean dauden zaborrak lekuz aldatu, usainak, zaratak, intxektuak, aparkaleku problemak eta abar zortzen due. Lehoiak ezin ditugu ireki, arazo larria da
- Rokodromotik gertu dauden zabor ontziak (errefuxa, plastikoa...)lekuz aldatu. Askotan zabor poltsak kanpoan daude espaloia okupatuz eta ez da batere atsegina bertatik pasatzia.
- Gure auzoan ez daude gazteek kirola egiteko lekuren bat Ardantzabide aldean primeran egongo litzateke multikirol (saskibaloia, etabar) egiteko eremu txiki bat Herri askotan ikusi ditugu Gazteak horrela tabernetan ibili ordez, jolasten eta kirola egiten pasako lirateke aisialdia

Arritokieta

- Irisgarritasuna

Axular Ibiltokia

- Gure kalean trafiko haundia dugu eta 2 norabide daudenez ez da arzenik gelditzen, orduan, Zumaiena pareko espaloitik joatea baino nahiago dut Zumaiena barrutik joatea, kotxeak bizi eta pegatuta igarotzen baitira.
- Beraz, Zumaiena pareko espaloian baranda sendo bat jartzea eskatuko nuke, luzera guztian, hor ibiltzen den haur, guraso, herritar eta bizilagun babesteko zoritxar enbat gertatu baino lehen.

Bonbillogoikoa

- Zaborrontzien kokapena; izan ere, eraikinek terrazak dituzte etxabeetan, eta etxeko atean aurkitzen ditugun katu, arratoi eta zaborren usaina dago.
- Autoen abiadura Zumaiena ikastetxetik pasatzean, haurrentzat oztoporik gabe.

Bonbillobekoa

- Axular ibiltokiaren norabide bakarreko trafikoaren ezarpena, erabilgarri eta seguruak izango diren (orain ez bezala) oinezko eta bizikletentzat ibilbideak sortuz.

Erdigunea

- Tabernariak, kaleak heureun terrazak balira bezala erabiltzea; jantoki edo komedore biurtzea. Taberna txikiak eta terraza, haundiak j haur da dagoen joera. Metro kuadro gutxioko taberna jarri, baina aurrean kale edo plaza zabala duen tokian.
- Tabernariei dauden arauak bete araztea. Hau da nagusiko eskatuko nukena.
- Portuaren irisgarritasuna hirigune historikoaren goiko aldeetara.
- Lokal itxiak etxebizitza gisa birmoldatzeko baimena ematea.
- Hirigune historikoak abandonu-sentsazioa du, batez ere jarduerarik ez duten lokal zaharretan. Gainera, merkataritza-jarduera ia hutsaren hurrengoa da goialdean, eta etxebizitzaren arazoa, berriz, gero eta handiagoa.

Itzurun hondartzarako bidea, Larretxora igo aurretik

- Irisgarritasuna
- Auto kopurua (trafikoa) jaitsiko nuke
- Parkeak handitu ez, berritu egingo nituzke.

Jadarre

- Ingurunearen zaintza handiagoa, berdeguneak sortu eta daudenak gehiago zaindu, auzo politago bat sortu.
- Oso zaharkitua dago. Kaleko aulkiak, argiak, ingurunea oro har.
- Udaletxearen aldetik hirigunekoei ematen zaien arreta bera ematea. Noizean behin auzoetatik bueltatxo bat eman eta beharrak baloratzea.
- Bertakook eta guztiok disfruta ditzagun.
- Nik gure auzoan marquesina bat ipiniko nuke Zumaia-Zumarraga eta Zumarraga-Zumaia autobus zerbitzuarentzat. Uste dut ez gure auzoko bizilagunei bakarrik baizik eta Puntanueta, poligono auzoko bizilagunei ongi etorriko zaiela, oraingo bus geltokia pixkat hurriti geratzen baita. Eskerrik asko.

Jadarre – Gautxori

- Hobeto erregulatzen dira aparkamietiak, ez dira errespetatzen ez aparkatzeko eremuak. Atarien zenbakiak berrikustea, ez datoz bat Katastroarekin. Sarrera bakoitzean zenbat eraikin dauden seinalaztatu.

Kantauri

- Aldatuko nuena da txakurrek dutela preferentzia gizakiwn alde. Hau da, askatuta dabilta nonahi, baita arriskutsuak kontsideratzen direnak. Inpunidade osoz dabilta edonon. Eta kakak!!!
- Barrakak ezin dira herri erdigunean ipini. Orain dela urte batzuk soinua askoz bajoagoa zen, orain askoz altoago jartzen dute musika eta beranduago arte. barrakero berriak bait dira ez dute lehen bezela errespetatzen bolumena
- Pareja,garaje tajo sarrera,Gernika parkearen erabilera

Larretxo

- Irisgarritasuna
- Turismoaren masifikazioa opor garaietan eta jai egunetan
- Aparkalekuarekin arazoak ditugu batez ere neguan 20:00tik aurrera eta opor eta jai garaietan edozein ordutan
- Egitea aurreikusten den igogailua lekuz aldatuko nuen eta Flysch hotela baino gorago egingo nuen. Egin behar den lekua nahiko behean dagoela iruditzen zait eta auzotar askori ez die arazoa konpontzen (jende nagusi dexente bizi da auzoan).

Oikia

- Oikia aintzakotzat hartzea eskatu nahi dut eta auzoan dauden berezitasunak oso kontuan izatea. Baztertuta egoteagatik ez baztertzeko gehiago. Mugikortasuna oso zaila da, autoarekiko dependentzia ezin dugu saihestu. Bidegorri bat eta ibiltzeko bide segurua oso ondo etorriko litzaiguke (gaur egun bide bazterretik joan behar dugu eta Beduako ibilbidea oso arriskutsua da bai txirrindularientzat eta oinezkoentzat ere). Bestalde, ekipamenduak falta zaizkigu, eguraldi txarra egiten duenerako batez ere.
- Kasualitatea zuzenean galdera zer aldatuko zenuke zure auzoan izatea. Elekzio aurreko bileran egin genion alkateari gure gabezien aipamena. Dena zen erreza eta aipamen handirik gabe egitekoa, ahaztu egin ote?
- Besteak beste aipatu zitzaizkion gauzak autobus parada zaharra zegoen tokian argia jartzea gauez eta neguan basura bota ahal izateko, oikiako frontoia maiztasun handiagoz garbitzea, herri bideen egoera ona bermatzea, herribideetako bazterretako belarra maizago moztea...
- Nik merezi duen garrantzia emateko eskatuko nzuake mantziorko zubiri eta honen inguruari. Eskatuko nizuke argietxea eta honen inguruko lurren jabetzarekin egin zaitezela. Eraikin eta ingurune bezela oso aproposa da aisialdirako. Gainera abandonatuta dago, eta herriaren historian zerezan handiko eraikin eta inguruak dira. Eraikin hori besteak beste gure historiaren museo bezala aprobeitza daiteke, argietxea, errota, zubia... Eta ingurua aproposa da mahai batzuk jarri eta egun pasa joateko, elorrixaren antzera

Parolaldea

- Udar anparkaleku gehiago bertakoentzat.
- Argi gehiago. Oso iluna dago Juan Belmonte kalea.

Puntanoeta

- Ez dakit
- Txakur kaka gehiegi dagoela.

San Jose/Bonifazio Etxegarai

- Alde zaharrean autoen ibilia mugatuko nuke.
- Hainbeste auto gora ta behera adokin nazkagarri hortan. Nahikua deu. Geo beti aldatzea adokina.
- Musika eskola-eroski-kutxa laboralea duaztenak-udaleko gizajo danak ...ta okerrenak klima aldatetaz hitzaiten duenak horiek danak beti kotxian alde zaharrian. Txapartegiko eta munipetako aldapan matrikula irakurketa (kroazian egiten da). Ez baaiz bertakua ez haiz sartzen.
- Ahoa betetze zaigu alde zaharra zaindu...ta kk. Zea baino trafiko geyo ta espaloj eskaso. Lotsa.
- Erribera 1 inguruko garajetako egoera. Lurra aldatzeko mouan dao. 40 urtian ez da ezerre in.

San Telmo Kalea

- Auzo guziko Lurrak eta umedadeak presiozko ur zorrotadaz pasako nituzke gatbitu bat emateko.
- BM eta Aitamari soziedade bitarteko zelaitxoan paso bat egingo nuke, denak zelai gainetik pasatzen gara eta.

5. EBALUAZIOA ETA ONDORIOAK

Oro har, eta, batez ere, Covid-19aren ondorioz eratorritako aparteko egoera kontuan hartuta, prozesuaren ebaluazioa positiboa da. Lehen fase honetan HAPO berriari ekarpen ugari egin baitzitzaizkion, gai guztiei buruzkoak. Nahiz eta informazio-hitzaldia bertan behera utzi eta paperezko galdetegi bidezko parte-hartzea baliogabea izan, parte-hartze digitalak eta telefono bidezko elkarrizketek oso ondo funtzionatu zuten.

230 parte-hartzaile baino gehiago izan zituen prozesuak, gehienak Zumaikoak, eta parte-hartze askotarikoa izan zuen:

- Nahiko berdintasunekoa generoari dagokionean (emakumeen, gizonen eta beste identitate batzuk dituztenen partaidetza % 51, % 45 eta % 4koa da, hurrenez hurren).
- Adinaren arabera, adin-talde guztietako pertsonak parte hartu zuten, eta adingabeek eta 65 urtetik gorakoek parte-hartze txikiagoa izan zuten.
- Pertsona gehienak Zumaikoak izan arren, prozesuak gainerako eragile-taldeak ere izan zituen: herriko elkarteak, udalerrian lan egiten duten pertsonak, noizean behin bizi direnak (asteburuetan edota oporretan) eta bisitatzen dutenak. Eta, neurri txikiagoan, udal-teknikariak eta udal-ordezkariek.
- Bizilekuaren arabera, gehienak Zumaian bizi dira; Artadikoak eta Oikiakoak gutxi baitira. Prozesuak beste udalerririk batzuetako parte-hartzaileak ere izan zituen.
- Parte-hartzaile gehienek euskara erabili zuten.

Prozesuak ekarpenak jaso ahal izan zituen planteatutako hamar gaien inguruan, horietan guztietan parte hartuz eta planteatutako ia gai guztietan adostasuna lortuz, ekipamendu- eta turismo-gaietan izan ezik, planteatutako gaiei buruzko iritzirik anitzekin. HAPO berrirako hamar gaiek lehentasuna izan arren, partaidetza handiena izan zutenak mugikortasuna, ingurune naturala eta etxebizitza izan ziren, eta horien atzetik turismoa, espazio publikoa eta ekipamenduak.

Ekarpen multzo hori HAPO berriaren hurrengo faserako lagungarria izatea espero da, Aurrerakina egiterakoan.

1. ERANSKINA ELKARRIZKETAK

Lehenengo Eranskinak egindako elkarrizketak jasotzen ditu, hala nola, Zumaiako Emakumeon Etxeko Elkartearen hausnarketak.

ELKARRIZKETAK

HAPOn gai eta esparru desberdinen inguruan egon daitezken iritzi desberdintasun eta kontrasteak atzemateko asmotan, honako 17 elkarrizketa egin dira herriko erakunde eta elkarte desberdinetako pertsonekin:

	ERAKUNDEA	ESPARRUA	DATA
1	Arkitekto Zumaiarra	Hirigintza	2020-05-12
2	Astindu Dantza Taldea	Kultura	2020-05-12
3	Baleike kultura elkarte	Kultura	2020-05-13
4	Basque Destination	Turismoa	2020-06-08
5	Yeregi elkarte	Kultura	2020-06-08
6	Geoparkea	Turismoa	2020-06-08
7	Txirrindulari elkarte	Kirola	2020-06-09
8	Otezuri egoitza	Gizarte Zerbitzuak	2020-06-09
9	Santixo Nautika Elkartea	Kirola	2020-06-11
10	Malen Etxea	Gizarte Zerbitzuak - Berdintasuna	2020-06-11
11	Olarru sub Kluba	Kirola	2020-06-11
12	Zumaiako gurasoa	Biztanlea	2020-06-11
13	Lokal baten jabea	Biztanlea	2020-06-15
14	Zumaiako Hoszum elkarte Lourdesko Amaren Abegi Elkartea	Gizarte Zerbitzuak - Mugikortasun urritasuna	2020-06-15
15	Arkitekto Zumaiarra	Hirigintza	2020-06-16
16	Zumaiako Institutua	Hezkuntza	2020-06-17
17	Natur Elkartea	Ingurunea	2020-06-17

1. Arkitekto Zumaiarra

Ingurune naturala

Ibaia nahiko artifizializatua dago industria gunean, izan ere, autobidea egin baino lehen askoz naturalagoa zen eta orain industrialdearekin txoke handia dago. Kirol-portuaren ingurua ere bai, lehen padura zonalde bat zen.

Landaredia inbaditzaileari dagokionez, Oikia inguruko nekazaritza ustiapen gunean, ibai ertzean, banbu kanaberak daude eta espezie horrek ez die uzten beste espezie batzuei hazten. Ondo legoke Udalak bertako landaredia babestu eta bultzatzeko proposamenak abian jartzea.

Mugikortasuna

Komunikazioa hobetzeko badira hainbat gune, garraio publiko bidez demanda egongo balitz ala bidegorri-sistema osatuz. Hauek izango lirateke gune horiek: Oikiarako bidea, Joxe Mari Korta industriagunearekin komunikazioa eta San Migelerantz eta Zestoarantz. Agian ez da erraza topografia aldetik, baina kotxeen erabilera gutxituko luke.

Espazio publikoa

HAPO berriak parke edota berdeguneak handitzearekin erabat ados. Orokorrean filosofia hori jarraitu beharko luke Zumaiak eta herria oxigenatuko duten parke edo espazio berde gehiago sortu. Mantenu errazeko plazak sortzeko joera daukagu eta espazio landatu batek berriz, zuhaitzez eta horien itzalez osatutako batek, kalitatezko espazioak sortzen ditu. Zumaian zuhaitzek ez dute presentzia handiegirik, ez dago neurri handiko zuhaitzen zonalde bat eta gehiago jarri beharko lirateke. Hitz gutxitan esanda, asfalto gutxiago eta zuhaitz gehiago behar dira.

Etxebizitza

Etxebizitza berrientzako demanda egonez gero, Puntanoetan eraikitzea da aproposena, azkenean paisaiarengan eragin gutxien izango lukeen eremua baita. Posible da eraikin berriak eta hezegunearen arteko konbinaketa egitea, hezegunea babestea eta sustatzea, eta baita Puntanoetan etxebizitzak proposatzea ere, badaude moduak hori egiteko.

Etxebizitza kolektiboek lur gehiago libre uztearen onura daukate, espazio publikoaren mesedetan. Adibidez, Sanchinarro Madrilen badago proiektu bat non komunitateari ematen zaion garrantzia, pasabideak eginez, espazio erdipublikoak sortuz... hau da, etxebizitza kolektiboekin eta altueran eraikiz, espazioa gehiago oxigenatzeko aukera dago, espazio publikoaren alde jokatzu.

Baldintzak betetzen dituzten lokalak etxebizitza bihurtzea oso ideia ona da, baina aukeran edo irekian utziz ea Babes Sozialeko ala libreak izan beharko luketen. Azkenean, pertsona batek udal-zerga ordaindu badezake salerosketa librea izan dadin gerora, ba aurrera. Aukera interesgarria da oso.

Jarduera ekonomikoa

Zumaian coworking espazioak planteatzeak onura asko ekarriko lituzke, herriko jendea kanpora joaten baita horrelako espazioen bila. Txandakako zerbait planteatu daiteke eta oso ondo legoke baliabideak ere ezartzea espazio horietan, azkenean autonomoentzat hasierako baliabideak lortze horrek esfortzu handia eskatzen duelako. Jendea erakarriko luke horrelako espazio batek, nola ez.

Zumaian dendek izan beharreko gehieneko azalera mugatzea baino, bertako produktua edo KMO produktua lehenetsi beharko litzateke. Ondo dago bertako produktuak saltzeko azalera handi bat hartzea, adibidez. Beraz, azalera baino bertako produktua lehenestea da gakoa.

Ekipamenduak

Ekipamendu itxiak baino ekipamendu erabilera izan dezaketen instalazio irekiek onura gehiago egiten diote herriari, frontoi irekiek adibidez. Herria bera erabili beharko litzateke espazio publiko bezala, egoki urbanizatuta. Instalazio itxirik ez da behar. Paisaia eta herria bera potentziatu behar dira kirol eta aisialdirako espazio bezala, bidegorriak, kaleak, ibaiak, hondartzak, mendi-bueltak...

Jasangarritasuna eta klima-aldaketa

Auditoretza bat egitea oso interesgarria da herriarentzat: mareak aztertzea, herriaren ezaugarriak zeintzuk diren, haizea, farola bakoitzak eguzki-plaka izango balu... Energia jasotzeko erabilitako neurrien etekina herriarentzat izango balitz gainera, askoz hobe; argindar publikoaren gastua arintzeko, adibidez.

Oso interesgarria da HAPOk azpiegitura berdea espazio publikoan bultzatzea uraren kudeaketa hobetzeko, orokorrean asfalto gutxiago jarri beharko litzateke eta drainatzen duen lur gehiago, hau da, zoladura iragazleak.

Inklusibitatea

HAPOk auzo batzuetako etxebizitzaren bizigarritasun- eta irisgarritasun-baldintzak hobetzea beharrezkoa da Larretxo inguruan, Itzurungo aldapako 2 zatiak ere oso maldatsuak dira, Santiago kalea ere bai. Larretxoko igoera mailakatua arrapala bihurtzea aukera bat izan daiteke, jende dezente bizi baita hor.

Galdera irekiak

Arau Subsidiarioei dagokionez, sotoko aparkalekuak konputagarriak izatea ez da ulertzen erraza. Helburua aparkaleku pribatu gehiago egitea bada kalea libratzeko, ez luke hala behar. Gainera, hirigintza-araua kontzeptuekin dago erredaktatuta eta ez da batere erreza egiten interpretatzeko, sinpleagoa behar luke izan.

Zaila da ulertzen nola egon daitezkeen Amaia plaza eta plazako etxebizitza fitxak Komentuko fitxekin lotuta. Odietako frontoian eta inguruan sartu diren etxebizitzek ere ez dute mesederik egiten. Ezin da bera izan, gestorea eta araua egiten duena. Bereizketa beharrezkoa da. Horrez gain, paisaiaren ikuspegia ere aztertu eta gehitu beharko litzateke Arau Subsidiarioetan.

2. Astindu Dantza Taldea

Mugikortasuna

Zumaian bidegorri-tarte batzuk falta dira alde zaharraren inguruan. Arroara bidean eta San Migelerantz bidegorria egotea interesgarria izango litzateke.

Etxebizitza

Zumaia barruko industrialdea, Urpe eta Conservas Ortiz arteko eremua, araztegira bidean, oso leku aproposa litzateke etxebizitzak egiteko. Kantauri itxurako plazak eta blokeak eraikitzeke adibidez.

HAPOk baldintzak betetzen dituzten lokalak etxebizitza bihurtzeko aukera ematea oso interesgarria da, baina ez dute zertan Babes Sozialekoak izan behar, libreak ere izan daitezke. Alde zaharrari eta kaleari bizia emango lioke, izan ere, alde zaharra hiltzen ari da.

Ekipamenduak

Eskola handitu beharko litzateke. Gainera, kultura-sailerako, dantza-emanaldietarako eta entseatzeko espazioak behar dira. Kiroldegia ere txiki geratu da eta, orokorrean, kirol-instalaziotarako espazioa behar da.

Egungo futbol-zelaiak oso espazio interesgarria okupatzen du. Futbol-zelaia beste nonbait kokatzea egongo balitz, agian eremu hori beste erabilera baterako erabili daiteke: etxebizitzak, kiroldegia handitzeko, beste zerbait planteatzeko...

3. Baleike Kultura Elkarte

Mugikortasuna

Bidegorrien gainean, hutsune nabarmena dago Zumaiak Urolarekin duen konexioan. Trenbide zaharreko zati handi batean egingo da, baino Iraetatik Narrondorako zatia falta da eta oso lotura beharrezkoa da. Urola osoarekin Legazpiraino lotzea da lehentasuna.

Herrigunean bere garaian ahalik eta handia egin zen bidegorri sare bereizi bat eraikitzeko. Azken urteetan berriz partxeak egin dira, errepidean bi marra margotuz eta horri bidegorria deituz. Beharrezkoa da auto eta bizikleten bideak bereiztea.

Espazio publikoa

Foronda atzeko espazioa oso gutxi erabiltzen da, bere garaien egokitze-lanak egin ziren arren, erdizka gelditu da.

Paroleko mendian espazio publiko berria bat egitea aukera on bat izan daiteke. Gaur egun ez da irigarria eta taberna bat dago itxita dagoena; berriz ireki ezkerreko espazio interesgarri bat izan daiteke. Horrez gain, portuan igerileku natural bat egiteko asmoa egon izan da, baina ez da aurrera eramanez oraindik.

Etxebizitza

HAPOk etxebizitza berriak aurreikustekotan, gaur egun beste erabilera batzuk dauzkaten lurrak berregokitzea izango litzateke egokiena; adibidez, erabilera gabe geratu diren gunen industrialak. Estazioko auzoan Guaskor aurrean dagoen enpresa ohi baten eraikina interesgarria izan daiteke.

Jarduera ekonomikoak

HAPOk lur industrial berriak aurreikusi beharrean gaur egun daudenak berriz egokitzea.

Ekipamenduak

Alde zaharra biziberritzeko komentua funtsezkoa da, baina ez dute argi zein erabilera izango litzatekeen egokiena. Ez da beharrezkoa beste adinekoen egoitza bat, baina agian biek bat egitea ideia ona izan daiteke. Kirol-ekipamenduetan eskaintza handitzeko beharra dago, azken urteetan kirol-instalaketak txiki geratu direlako.

Turismoa

Jarduera turistikoa eta zerbitzu-sektorea lagundu behar dira, baina turismoak ez du lehentasuna izan behar herrian. Turismoak ezin du Zumaiarren eguneroko bizitza kalitatea baldintzatu, herritarren egunerokotasunaren ongizateak lehentasuna izan behar du.

Hotel-jardueretan, herrian aterpetxe ireki baten (erromesena ez dena) falta igartzen dago. Hotelen kasuan, eskaria balego eskaintza handitu ahalko litzateke, baina beti ere herritarren eta turisten arteko zentzuzko proportzio bat mantenduz.

Landetxeen inguruan aldiz, baserritar batek bere lehen sektoreko aktibitatearen osagarri bezala landetxe-erabilera egin nahi badu ondo, baina ez lirateke erraztasun bereziak eman beharko jarduera horiek bultzatzeko. Benetako erraztasunak landa eta baserriko benetako ekintzetarako eman beharko lirateke.

Jasangarritasuna

Urteetan Udalak igogailuak instalatzeko laguntzak eman dituzten bezala, orain Udalak eraikinetan klima-aldaketa arintzeko neurriak hartzeko laguntzak ematea eman beharko lituzke, eguzki-plakak instalatzeko, adibidez.

Inklusibitatea

Espazio publikoaren irisgarritasuna hobetzea beharrezkoa da, eta, Estazio auzoa okerren dagoenez, horrek izan beharko luke lehentasuna.

4. Basque Destination

Mugikortasuna

San Migel, Oikia, Aizarnazabal eta horrelako auzoen artean komunikazioa hobetu behar da bidegorri, oinezkoentzako ibilbide eta garraio publikoaren bitartez. Bidegorriaren kasuan, bereziki, Narrondotik Iraetarako zatiaren falta nabarmena da. Urola guztia konektatuta dago zati hori izan ezik, eta beraz, eraiki ezker, Urola kostako sare osoa osatuko litzateke. Zumaia - Zarautz bidean ere ondo legoke, baina hor, mendi-magala eta itsasoaren artean geratzen den zabalera urria dela eta, zailagoa da. Bestalde, gasolindegia herriaren kanpoaldera mugitu beharko litzateke, tapoi handi bat sortzen duelako herri sarreran.

Turismoa

Hotel handi berri baten beharra dago.

5. Yeregi Elkarteak

Ondarea

Eraikinen ondarearen babesaren inguruan, orokorrean gaur egun babestu zitekeena dagoeneko katalogatuta dago. Narrondo inguruan dagoena da elkartearen ikuspuntutik interesgarriena, San Jose eta Zumaia, baina jada babestuak daude. Pena da, lehen Zumaian industrialde interesgarria zegoela eta jada dena eraitsi izana. Bizirik mantentzen diren bakarrak aipaturikoak dira.

Turismoa

HAPOk Zumaian jarduera turistikoa eta zerbitzu-sektorea bultzatzea beharrezkoa da, baina beti baldintza bat argi edukita: « Zumaia bizitzeko da » Jon Maiak esan zuen bezala. Zumaia bizi-entzako pentsatu behar da lehenengo. Kanpotarrak eta turismoa ongietorriak izango dira noski, baina beti neurritz eta Zumaia daukan tamaina eta biztanleak kontutan hartuz eta baldintzekin noski.

Apartamentu turistikoena oso arriskutsua izan daiteke, aukerak mugatu egin behar dira.

6. Geoparkea

Ingurune naturala

Biodibertsitatea eta Geodibertsitatea hartu behar dira kontuan, non eta Zumaian, ez Biodibertsitatea bakarrik.

Turismoa

Hotel-jardueran ez litzateke eskaintzaren kantitatea handitu behar, gaur egungo eskaintzaren kalitatea hobetu baizik. Landa-eremu asko dagoenez, landetxeren bat gehiago ireki ahalko litzateke, baina horretarako erraztasun bereziak eman gabe.

Apartamentu turistikoak mugatu egin beharko lirateke, herritarren eta apartamentu turistikoen arteko oreka bat bermatu ahal izateko.

Jasangarritasuna eta klima-aldaketa

Klima-aldaketara egokitzeko neurriez gain ikerketa ere bultzatu beharko litzateke. Zumaian bada duela 45 milioi urte egon zen eta gaur egun gertatzen ari denaren antzekoa den klima-aldaketa baten inguruko ikerketa bat. Ikerketa hori bultzatzea interesgarria da ulertu ahal izateko etorkizunean zer gertatu daitekeen.

Galdera irekiak

1- Zumaiak daukan garrantzia geologikoa gai horren inguruko azpiegitura eta instalakuntzen mailetan ere islatu beharko litzateke. Algorriko zentroa berritu egin behar da diskurtso eta antolamendu aldetik, eta erreferente bat bihurtu. Interesgarria litzateke Geoparkeak egiten duen bezala, hiru lan-ildo jarraitzea: ikerketa, ingurumen-hezkuntza eta ekoturismoa. Gaur egun, Izan ere Algorriko zentroa hezkuntzara bakarrik mugatzen da. Zumaia, Deba eta Mutrikuko garapen-markoa ekoturismoa, ingurumen-hezkuntza eta kontserbazioarena izan beharko litzateke, kalitatezko turismo interpretatu bat eskainiz.

2- Ondarea eta dibulgazioa eta hezkuntzari garrantzia ematea ezinbesteko dira. Ez bakarrik ondare geologikoa eta eraikia, kultura-ondarea ere bai. Erronka bat izango da kultura-ondareari merezi duen garrantzia ematea, hainbat esparrutan: tradizioa, euskara, itsaso-ondarea, nabigazioa, ondare historikoa, ondare immateriala...

Momentuz ondare horrek ez dauka isla bat herrian eta bere espazioetan. Ideia ona izan daiteke nonbaiten harrera zentro bat egitea, herritarrei eta bisitariari zuzenduta beti ere, eta flyshak bisitariak erakartzeko duen indarra erabiliz beste gauza batzuk ere erakusteko.

7. Txirrindulari Elkartea

Mugikortasuna

Bidegorri-tarteen inguruan, Zumaian herrian bertan daudenak eskas samarrak dira, San Migelera joateko bidegorria ondo legoke eta Oikiara joateko ere bai.

Autokarabanentzako gune publikoa antolatzea interesgarria litzateke. Frantzia aldean horrelako guneak oso prestatuak daude eta Zumaian berriz ez daukagu horrelakorik.

Ekipamenduak

Elkartetik duela urte batzuk udaletxean proiektu bat aurkeztu zen erabilera anitzeko kirol-zentro bat sortzeko non belodromo bat, atletismo-pistak, eskubaloirako kantxak... zeuden. Gipuzkoa mailan proposatzen zen, izan ere, Donostiako Belodromoak ez ditu neurri edo baldintza olinpikoak betetzen.

Zumaiak bailaran badauka garrantzia, Eibarrekin ere konexio ona dauka, eta Zumaia indartzeko proiektu aproposa zen. Egia da aurrekontu dezente behar zela Zumaia bezalako herri batentzat, horregatik proposatzen zen Gipuzkoa mailan. Proiektua Jadarre auzoaren atzealdean, mendebaldean kokatzen zen, Jadarre erreken inguruan egindako betelan baten gainean. Futbol-zelaia ere bertan planteatzen zen eta horrela gaur egungo futbol-zelaiaren eremua beste zerbaitetarako erabil zitekeen.

Proiektu interesgarria da gaur eguneko Zumaiarentzat (nahiz eta agian Udalaren eskumenetik kanpo egon), horra hor proposamena berriro ere.

8. Otezuri Egoitza

Inklusibitatea

Zumaia ez dago oso egokituta mugikortasun aldetik. Nahiko herri laua izanik ere eta herrigunera joateko aldaparik izan gabe ere, espaloiak ez daude ondo eta zoladurak traba asko jartzen ditu.

Etxebizitzan bizigarritasun- eta irisgarritasun-baldintzak, batez ere San Juan inguruan, hobetu behar dira. Bada bertan etxebizitzetara hurbiltzeko zailtasunak dituen jenderik.

Gauetz Trenbidetik Otezurirako tunela saihesten dut.

9. Santixo Nautika Elkartea

Mugikortasuna

Itzurungo hondartza, Santiagoko hondartza edo Geoparkea bezalako lekuetara autoz hurbiltzea ez da saihestu behar mugikortasuna-arazoak dituen jendea ezin delako bertara iritsi bestela. Arazorik ez daukan jendearentzat mugatzea ados, baina orokorrean ez.

Turismoa

Hotel-jarduera gehiago egon beharrean, jada badaudenen maila hobetu beharko litzateke. Adibidez, garai batean bazegoen maila handiko hotel bat zerbitzu eta instalazio asko eskaintzen zituen, Amaia izena zuena, horregatik horrela izena du gaur egun Amaia plazak. Zumaia horrelako beste zerbait behar du.

Apartamentu turistikoek berriz, arazoak ekar ditzakete, hobe da mugatzea.

Inklusibitatea

Ardantzabideko irisgarritasuna hobetu beharko litzateke. Egoiliarrek bakarrik utzi dezakete kotxea eta orduan nola eraman erosketak Eroski edo BMTik etxera? TAO ordainduta ere gero leku batzuetan ezin da aparkatu, BM inguruan adibidez. Mugikortasuna arazoak dituen jendearentzat ez da erraza.

Gauetz badaude argi gutxiko gune batzuk, goizean itsasontzia hartzean adibidez, Parola aldean argi batzuk jarri zituzten, baina ez dira pizten eta oso arriskutsua izan daiteke itsasontzientzat.

Pantalanak ere ez dauka argirik eta oso arriskutsua da lekua ezagutzen ez duen norbaitentzat, istripu bat gerta daiteke.

10. Malen Etxea

Inguru naturala

Nekazaritza-interesa daukaten lurzoruak gordetzea beharrezkoa da, baina komunitate erabilerarako, ez erabilera pribaturako.

Mugikortasuna

Zumaian aparkatzeko arazo handiak daude eta horri irtenbide bat eman beharko litzaioke. Bidegorri-tarteak osatzeko lehentasun-ordena honakoa da: Zumaiaiko erdigunetik Santiago hondartzarako tarteak, Narrondotik Zestoarako tarteak eta Zumaia bira ematen dion bidegorri bat.

Etxebizitza

Etxebizitza berriak alokairu sozialean bakarrik aurreikusi behar dira. Ez litzateke euro bat gehiago inbertitu beharko jabetza pribatuetarako. Erregimen bakarra Babes Sozialeko etxebizitza izan beharko litzateke.

Turismoa

Inguru naturalarekin bateragarria den turismo-mota bat bultzatu behar da, landagunearekiko suntsitzailea edo kaltegarria ez den turismo-mota bat.

Inklusibitatea

Gautxorin bada jendea bere etxetik ateratzeko arazoak dituenak.

11. Olarru Sub Kluba

Etxebizitza

Ibaiaren erribera aldea, trenaren zubi eta poligonoen aldea oso zonalde egokia iruditzen zait etxebizitzak eraikitzeko.

Ekipamenduak

Elkarteak aisialdian gehien erabiltzen dituen ekipamenduak arrauneko pabiloia edo itsasoko pabiloia esaten diotena dira.

12. Zumaiko biztanlea eta gurasoa

Mugikortasuna

Guraso bezala haurrak Herri Eskolara eramateko, Aita Mari eraikinean sarrera nagusia berritu zuten eta ondo dago, baina, beste aldetik, errepidetik pasa behar da. Gainera, garaje sarrera bat ere badago eta arriskutsua da.

Bidegorri-tarteei dagokienez, Portutik Itzurunera joateko errepidean bertan bizikleta-bide bat markatuta dago, errepidean bertan pintatuta. Ez da bidegorri egoki bat eta bizikletaz umeei joateko ez da ez aproposa, ez segurua. Zumaikatik Narrondora badago bidegorria, baina Narrondotik Arroara egitea oso ondo legoke (nahiz eta hori segur aski Zestoaren eskumena izan).

Espazio publikoa

Zumaian parke estali bat izatea beharrezkoa da umeei eguraldi txarrarekin kanpoan jolasteko espazio libre bat izan dezaten, ondoko herriek daukaten bezala, Zarautzek adibidez.

Etxebizitza

Babes Sozialeko alokairuak lehenetsi beharko lirateke, erosteko aukeraren aurrean, jende-mugimendua egon dadin, benetan beharra eta baldintzak betetzen dituztenek erabili ditzaten. Izan ere, gazteentzako alokairuan ere ez dago aukera gehiegi eta beraientzat da aproposa.

Ekipamenduak

Herri Eskolako jangelan txandak antolatu behar izaten dituzte demanda handia dagoelako, beraz, jangela handitzea ideia ona litzateke.

Lehen esan bezala, eremu estaliren bat, parke estaliren bat, ekipamendu itxi bat beharrean ere aproposa litzateke umeei eguraldi txarrarekin jolasteko.

Igerilekua ere puntako orduetan beteta egoten da eta aldagelak, batez ere, oso txiki geratzen dira. Beraz, aldagelak handitzea ondo egongo litzateke.

Turismoa

Turismoari begira, jatetxeak falta dira, tabernak badaude, baina jatetxe gutxi.

13. Zumaiako biztanlea eta lokal baten jabea

Etxebizitza

Etxebizitza berriak eraikitzekotan, estazio parean eraikitzea da egokiena, errotonda inguruan.

HAPOk baldintzak betetzen dituzten lokalak Babes Sozialeko Etxebizitza bihurtzeko aukera ematea oso interesgarria eta beharrezkoa da. Alde zaharreko lokalak aktibatzeke neurriak beharrezkoak dira. Azkenean, komertzialki lokala ez bada interesgarria, lokalak itxita eduki beharrean, irtenbide bat eman behar zaie Zumaiaren onerako eta herriari bizia emateko. Nolabaiteko malgutasuna ere beharrezkoa litzateke alde zaharreko lokalekin bizigarritasun-, irisgarritasun-... baldintzak betetzeko haien tipologia dela eta, ez delako etxebizitza berrietan bezain erraza lokalek baldintza horiek betetzea.

Jendeak ez dezan espekulatu hobe da Babeseko etxebizitzatan bihurtzeko aukera ematea lokalei eta ez aukera librea.

Turismoa

Lokal horiek apartamentu turistiko bihurtzeko aukera izatea ere ondo legoke, aztertu beharreko zerbait da, alde zaharreko lokalei irtenbide bat emateko. Beraz, apartamentu turistikoen baldintzak malgutu beharko lirateke.

14. Zumaiko Hoszum elkarteak Lourdesko Amaren Abegi Elkarteak

Mugikortasuna

Itzurunera autoz iristeko aukera arautu beharko litzateke. Mugikortasun-urritasuna ala euren kabuz iristeko zailtasunak dituzten pertsonen iritsiera bakarrik baimendu beharko litzateke autoz, eta beti ere justifikatuta.

Bidegorrien inguruan berriz, sarea osatzea eta konexioak hobetzea da garrantzitsua, ez hainbeste zati berriak proposatzea. Herri eskola, Masabia eta Aita Mari inguruak ez daude ongi konektatuta. Bidegorriak inora iritsi gabe amaitzea ekidin behar da.

Autokarabanan inguruan berriz, ez dakigu aparkalekuaren beharra dagoen, baina arautu egin behar da, gaur egun poligonoko aparkalekuan aparkatzen baitute.

Jarduera ekonomikoak

Industria herrigunetik Beduara eramatea herriarentzat onuragarria litzateke, eta bertan etxebizitzak egitea.

Inklusibitatea

Gurpildun aulki batean eta taka-taka bat erabiltzen duten pertsonak herriguneko puntu guztietara iristeko aukera izan beharko lukete.

Gaur egun mugikortasun-urritasuna duten pertsonak autonomoak dira dituzten aulki motorizatuei eta taka-takei esker. Hirigintza ez dago egokituta gaur egungo aulkien eta erabiltzaileen beharrei. Gaur egungo gorpil mazizoak herriko lurreko zuloetan ataskatuta geratzen dira. Arazo handienak zoladurak, zebrabideetan egin behar diren jaitsierak eta igoerak dira.

Gurpildun aulkian baldin bazoaz hainbat espaloietan ez dago pasatzeko erarik tabernen terrazak direla eta. Ribera kalean zaila da eta Txikixa tabernaren kalean, adibidez, ezinezkoa izaten da pasatzea. Terrazak baimentzea ondo, baina guztientzako nahikoa den pasalekua utziz.

Mugikortasunagatik Zumaiko gunek altuenak eta Oikia ere ekiditen ditut. Oikiarekin mugikortasuna eta zerbitzu publikoa hobetu beharko lirateke.

Gernika pasealekua oso gaizki dago aulkientzat. Gurpildun aulkian dagoen pertsona batek tren-estaziora joan nahi badu puntu batetik aurrera errepidera ater beharra dauka, oso arriskutsua da.

Faroko auzoan bizi ezker eta mugikortasun-urritasuna izanez gero, tren edo autobus geltokira iristea ez da erreza, oso urruti baitaude.

Behar bereziak dituzten aurretzako Zumaia ez dago prestatuta. Ez dago parke egokiturik Zumaian, beste herri batzuetan zabu egokituak eta antzerakoak dituzte.

Ikusmen-urritasuna duten pertsonentzat soinua egiten duten bi semaforo bakarrik daude Zumaian. Pertsona horiek ezin dute euren kabuz errepidea zeharkatu eta norbaiten beharra dute.

Zumaia orokorrean herri laua da baina Jadarre, San Jose, Estazioaren auzoa, Alde Zaharra, Goiko plaza eta Arritokietarako mugikortasuna ez da erraza. Eskailera eta aldapa asko daude. Alondegia igogailua erraztasun bat da adibidez, baina 20etan ixten da, eta gainera, eliza aldera joateko eskailera batzuk daude igogailuz gora iritsi ondoren.

Inguruko herrietan (Eibarren, Getarian,..) egin dituzten eskailera mekanikoak ez dira irisgarritasun-soluzio bat. Ez dira irisgarriak, gurpildun aulkian doan pertsona batek ezin ditu erabili, eta bastoiarekin dabilen pertsona batentzat zaila izaten da eskailerara sartzea eta ateratzea. Igogailuak soluzio onak dira baina eskailera mekanikoak ez.

15. Arkitekto eta gazte zumaiarra

Etxebizitza

Alokairurako demanda asko dago eta eskaintza gutxi, agian turismoagatik hartuta daudelako, baina etxe bat alokairuko merkatura ateratzen denean jendea borrokatu egiten da. Gazte Zumaiarren artean lagunekin bizitzera joateko formatua ohikoa bilakatzen ari da, baina zaila da alokairurako pisu bat aurkitzea.

HAPOk etxebizitza berriak planteatuko balitu, kanpin inguruan edo tren-geltoki zaharraren inguruan egokia litzateke, futbol-zelai atzean agian. Matia zentroa dagoen inguruan ere bai bestela.

Gazteen artean komentu zaharra etxebizitza sozialetarako bihurtzea oso entzuna egiten ari da. Kultura-erabilerarako bakarrik izan beharrean, erabilera mistoak proposatu beharko lirateke, kultura eta gazteentzako etxebizitzak konbinatuz, coworking, eta antzekoekin. Gazteek alokairua aurkitzeko duten arazoari irtenbide bat emateko.

Ekipamenduak

Komentuan kultura-erabilera jartzea egokia litzateke, gazteentzako etxebizitzekin konbinatuta. Zona lasaia da, baina kulturalki oso ondo kokatuta dago. Lursail nahiko handi bat dauka eta potentziala dauka.

Tren-estazio zaharra kulturarako oso eraikin egokia da. Gazteen artean askotan komentatu da bertan kafe-antzoki moduko zerbait jartzeko ideia. Baina ez da aproposa Algorri zentroa bertara mugitzea. Algorri zentroak bere xarma dauka dagoen lekuan, eta turismo-bulegoa ere ondo dago, ez luke hobeto funtzionatuko estazioko eraikinera aldatzeagatik. Algorriko eraikina puntu majoa da eta potentziala du.

Kofradia zaharra zenaren taberna hutsa dago. Taberna horren lokala oso puntu interesgarria da, herriaren erdi-erdian dago eta lokaltxo hori balioan jartzea oso interesgarria litzateke kulturekin lotutako jardueretarako.

Lehenengo gaztetxe zaharrak (okupatua) Eusebio Gurrutxaga plazakoak sarrera pribatua du, baina gazteek oso bere sentitzen dute. Herri erdian dagoen etxe pribatu bat da, izugarrizko zelaiarekin. Eraikin interesgarria litzateke gaztetxe ireki moduko bat planteatzeko, adibidez.

Kiroldegia herriak duen tamainarako nahikoa da.

Zumaiako herriak dituen ekipamenduak oso ondo daude, baina oso herri aktiboa da eta eskaria dago denetarako. Talde eta erakunde asko ari dira espazio bat erreklamatzeko: umeentzako aterpe bat, emakumeen etxea, kultura-puntu bat falta da taberna ez dana (erakusketetarako adibidez...), musika-areto bat...

Zeramikako tailerrak eta gainerako tailer publikoak Gazteluan egiten dira, eta jendeak asko

erabiltzen duen zerbitzu bat da. Lokal hori ez dago egokituta labe batzuk edukitzeko, adibidez. Polita da eta jendea gustura dago, baina kultura-ekipamendu berriak jarduera horietako batzuk jaso beharko lituzkete. Aipatutako komentuan edo tren-estazioan egokitzea aukera interesgarri bat izan daiteke.

Santiago hondartzan lehengo urtean obrak egin ziren eta ondo egindako obrak dira, hondartzari bultzada bat eman diote. Ez dago gehiagorik egiteko beharrik ekipamenduen aldetik. Santiagok funtzionatzen ez badu bertara iristeko konexioa izan daiteke arazo nagusienetako bat. Gipuzkoa barnealdeko jendeak ere etortzeari utzi zion TAO jarri zutelako hondartza inguruan. Zuloaga museoa berriz pribatua da, itxita dago, eta museoaren beste aldean agian zerbait interesgarria egin zitekeen.

Inklusibitatea

Estazio ingurua nahiko iluna da. Hori izan daiteke gautzean saihesten den puntuetako bat. Aita Mariko kalea berriz, baxuak ireki zituztenetik seguruagoa da.

Jarduera ekonomikoa

Merkataritzak nahiko asetzen ditu herritarren beharrak. Bestelako merkataritzarako lotura onak daude inguruko herri eta hiriekin.

16. Zumaiako institutua

Mugikortasuna

Irakasleek aparkatzeko bonua hartu behar izaten dute, baina ondo moldatzen dira. Oso positiboa litzateke haur-hezkuntza, lehen hezkuntza eta institutua inguru berdinean daudenez zonaldea oinezkoentzako egitea. Arroa eta Oikiako ikasleak autobusez iristen dira. Beharrezkoa da Narrondotik Iraetarako bidegorri zatia osatzea.

Inklusibitatea

Asko hobetu da herriaren egoera azken urteetan baina gehiago hobetze aldera egin daiteken guztia positiboa da. Estazio aldera joateko gorpildun aulkiarekin konplikatuagoa da. Zeharkatzeko rodeo handi bat egin behar da. Tunel-partea ekiditen diren inguruak dira. Alaien, adibidez beti esaten zaie gazteei argia daukaten bideetatik bueltatzeko.

17. Natur Elkartea

Ingurune naturala

Ibaiak artifizializatuak daude. Ondo legoke hormigoizko hormak kendu eta landaredia hazten uztea. Narrondo ibaiak aukera asko eskaintzen ditu horretarako. Urolan berriz, zailagoa da, baina Joxe Mari Korta zonaldean, behintzat, horma leundu daiteke nolabait.

Landaredia inbaditzaile ugari dago: dunetan *yucca gloriosa*; ibaiertzetan, ur gazi eta geza elkartzen den lekuetan, *fallopia japonica* zabaldu egin da; ibaiertzetan, kanabera ugari dago; eta parketan eta plazetan, *crocomia* ugari hazi da; denak dira kendu beharrekoak. Mapaketa bat egin daiteke espezie horien kokapena markatzeko eta plan bat prestatu horiek ezabatzeko. Gainera, bertako landaredia bultzatu beharko litzateke.

Mugikortasuna

Oinezkoen bideak eta bidegorriak lehenetsi beharko lirateke orokorrean, baina ez edozein preziotan. Beti ere, ingurumenaren kaltetan ez bada eta babestutako eremuetan triskantzarik egiten ez bada. Bidegorri-zatiak gehitu beharrean, bidegorri-sare osoa birplanteatu beharko litzateke, izan ere, egungoa kotxeen ibilbidea oztopatu gabe egindako sarea da eta petatxuka, inongo aurre plangintzarik gabe. San Migelera irisgarritasun mistoa egiteko aukera egongo litzateke eta Oikiarako bidean ere, 1,5 m-ko zabalerak ematen du oinezkoen bidea egiteko.

Autokarabanentzako gunea antolatu beharrean, regulatu eta mugatu egin beharko litzateke: kontrolatu eta fekalak botatzeko sistema bat egon dadila ez ditzaten ibaira bota... etab.

Espazio publikoa

Zumaiak dauzkan berdegune gutxiak kontserbatu egin behar dira. Duela gutxi berdegune bat kendu dute umeen parke bat egiteko eta hori ez da posible, daukaguna kontserbatu behar da. Foronda atzean, bideak mantendu behar dira nondik ibili behar den zehazteko, berdegune hori zaindu eta parke berdea txukundu behar da.

Biotopo babestuaren eremua Udalak erosi beharko luke eta babestutako zonaldeen estrategiaren barruan egon dadin.

Etxebizitzak

Etxebizitza berrien inguruan ere muga bat jarri beharko litzateke, zenbat bigarren etxebizitza daude Zumaian? Udara aldera biztanle kopurua bikoizten da.

Alde zaharra bultzatzeko eta merkataritzei irtenbide bat emateko, baldintzak malgutu beharko lirateke. Badago jada araudi bat merkataritzentzat.

Jasangarritasuna eta klima-aldaketa

Energia berriztagarriena Eusko Jaurlaritzaren eskumena da, baina ondo legoke Udalak ere neurriak hartzea. Naturari lagundu egin behar zaio orokorrean, zuloak sortuz eraikin berezietako fatxadetan enarek habiak egin ditzaten, fatxada berdeak sortuz eraikin publikoetan...

Uholde-arriskua ere oso gai urgentea da, ur-maila igo egingo da eta arazo handiak sortuko ditu Zumaian. Gune askotan bilatu behar dira irtenbideak, gasolinerako zubiaren inguruan, adibidez. Orokorrean uraren deskarga naturaleko guneak pentsatu behar dira, ura metatuko duten guneak planteatu tanke huts handien bidez, edo teknikoek erabaki dezatela zer dan hobe, baina uholde-arriskuaren aurrean zerbait egitea oso plan urgentea da.

Galdera irekiak

Espazio publikoaren pribatizatzea kezkagarria da, orain tabernen terrazek kale eta espazio publiko handia okupatzen dute, bai ingurumenaren aldetik eta baita irisgarritasunaren aldetik ere arazoa handia dakar horrek.

ZUMAIAKO EMAKUMEON ETXEKO ELKARTEA TALDEKO HAUSNARKETA

1. GAIA: INGURUNE NATURALA

2. GAIA: MUGIKORTASUNA

Oinezkoei eta bizikletei lehentasuna eman behar zaiela uste dugu. Kaleak oinezkoentzat jartzen jarraitzea, eta bizikletak lotzeko estalpeak eraiki beharra ikusten ditugu.

Paseatzeko dauden bideetan, deskantsatzeko aterpetxoak, bankuak eta komunak behar dira. Helduek kirola egiteko parketxoak eraikitzen jarraitu beharra dago (eta agian, horien erabilera ez da hirugarren adineko pertsonetara mugatu behar).

Garraio publikoa: erabiltzaileak batez ere emakumeak garela ikusten da datuetan. Horregatik, garraio publikoaren egokitasunak batez ere emakumeei eragiten digula kontuan izan behar da. Zaintzarako egokituta daudela ziurtatu behar da. Bestalde, Kantauri Plazako autobus-geltokia korrante handiko lekuan dago, hotz handia pasatzen da autobusaren zain bertan.

3. GAIA: ESPAZIO PUBLIKOA

Espazio publikoak bizitza kolektiboa sustatu behar duela uste dugu: estalpeak jartzea jendea elkar daitekeen lekuetan, bankuen norabideak elkarrekin hitz egitea ahalbidetzea, harremanetarako espazioak sortzea, erabilera gutxi duten plazak bizitza izan dezaten elkargune bilakatzea.

Herrian zaintzarako espazioak egon behar dira, hau da, espazioek erraztu egin behar dituzte seme-alaben, helduen edota dependentzia dutenen ongizatea eta autonomia. Adibidez, haurrek elkarrekin eta arriskurik gabe jolastu ahal izateko espazio libreek gurasoen lasaitasuna areagotzen dute. Horregatik, berdeguneen eta jolas liberako espazioen alde gaude.

Espazio berdeen erabilerarekin jarraituz, faroari eta Gernika Parkeari erabilera publikoa ematea ondo legoke.

Bestalde, herriko kale-izendegian emakumeen presentzia urria da. Zumaia Berdintasun Foroa aspaldidanik ari da gai hori lantzen. Une honetan, plaza baten izendapena egiteko proposamena aurkeztekotan gara Udaletxean, Berdintasun Foroaren eta Emakumeon* Etxearen izenean.

Herrian pareta eta guno asko daude "hilda", erabilerarik gabe eta tristura ematen diote espazio publikoari. Ondo legoke kolorez janztea, irudiak jartzea edota erabilera ematea, eta agian aurreko ideiarekin lotuta, erabili daitezke emakumeen edo historikoki emakumeek egindako lanen ikusgarritasuna sustatzeko.

4. GAIA: ETXEBIZITZA

Etxebizitza-eskubidea bermatzea ezinbestekoa ikusten dugu. Sarbidea erraztu behar zaie zailtasun gehien dituztenei: bakarrik bizi diren pertsonai, alargunei, egoera okerreanean dauden emakumeei... Gainera, iruditzen zaigu etxebizitza sozialetan alokairua bultzatu behar dela erosketaren gainetik. Eta etxebizitza turistikoak mugatu beharra dagoela.

5. GAIA: JARDUERA EKONOMIKOA

Herriko merkataritza eta lehen sektorea bultzatzea oso garrantzitsua da. Lehen sektoreari dagokionez, jendearen bizitza-erritmora egokitu beharko litzake (adibidez, azokak goizez bakarrik irekitzen badira, jende asko lanean dago eta ez du haietan erosiko)

Ekintzaileentzat eta coworkingerako espazioa eraikitzea ere ondo ikusten dugu.

6. GAIA: EKIPAMENDUAK

Emakumeon* Etxea falta da. Eraikitze prozesuan gaude. Zinema dagoen eraikina ez dago egoera oso onean.

7. GAIA: ONDAREA

8. GAIA: TURISMOA

9. GAIA: JASANGARRITASUNA ETA KLIMA-ALDAKETA

10. GAIA: INKLUSIBITATEA

Orokorrean, hirigintzatik hartzen diren erabaki eta neurri guztiek elkarbizitza eta inklusioa kontuan izan beharko lituzkete. Adibidez, gunen naturalak babestean kontuan izan gurgildun aulkian dagoen pertsonak nola iritsiko diren; edo autoentzat itxitako guneeetan mugikortasun-arazoak dituzten pertsonai sarbidea baimendu.

Irisgarritasunarekin jarraituz, pertsonak elkarrekin joateko aukera ematen duten espaloi zabalak behar dira herrian, umeen edo helduen aulkiekin ibiltzea ahalbidetzen dutenak. Kale edo gunen batzuetako pasabideak estuegiak dira.

Duela denbora, herrian mugikortasunerako zailtasunak dituzten pertsonen eta euren familien diagnostiko bat egin zuten. Ateratako emaitzei kasu egin beharko litzaieke.

2015ean herriko puntu beltzen mapa ere egin zen. Bertan puntu iluntzat hartutako gunenak hobetu al diren begiratu beharko litzake, eta hobetu ez diren horietan beharrezko neurriak ezarri.

Pertsona eta animalien elkarbizitzari dagokionez, sustatzeko neurriak beti daude ondo: jabeek txakurren kakak jasotzeko kanpainak indartzen jarraitzea, edota berdeguneetan txakurrak kaka egiteko lekuak mugatzea.